


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GRADU AMAIERAKO LANA
FILOLOGIAKO GRADUA
IKASKETA KLASIKOEN SAILA

GREZIAR LITERATURA MODERNOAREN
KLASIKOAK: NIKOS KABADIAS, BETIEREKO
BIDAIA

EGILEA:

OIHANE CANALES MARQUINEZ

TUTOREA:

FRANCISCO JAVIER ALONSO ALDAMA

GASTEIZ, 2019

AURKIBIDEA

Laburpena	3
1. Sarrera	4
a) Autorearen bizitza	5
b) Testuinguru literarioa.....	7
c) Bere poesia	10
2. Nikos Kabbadiasen <i>Li</i>	14
a) Kabbadiasen hizkuntzari buruzko zenbait apunte	16
b) Metaforak eta zenbait azalpen	17
c) <i>Li</i> eta mundu klasikoa	20
I. Homero, Kabbadiasen gidari	20
1. Infernuko ate joka	23
3. Ondorioa	26
4. Bibliografia	27
Eranskinak	1

GREZIAR LITERATURA MODERNOAREN KLASIKOAK: NIKOS

KABADIAS, BETIEREKO BIDAIA

OIHANE CANALES

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

ocanales001@ikasle.ehu.eus

LABURPENA

Honako lan hau Nikos Kabbadias idazle greziarraren literatura aztertzean datza. Horretarako, bere bizitza eta ingurune historiko eta literarioari buruzko sarrerak garatuko dira, irakurlea ondo kokatzeko eta autore honen idazteko modua eta estiloa ahalik eta oberen ulertu dezan; izan ere, garrantzitsua da idazle honen egoera ulertzea bere literaturan izan duen eragina hauteman ahal izateko eta bere idazteko modua ulertzeko eta estimatzeko. Ondoren, *Li* izeneko obran zentratuko gara: hizkuntzan, idazlan honi buruzko zenbait azalpenetan eta mundu klasikoarekin duen loturan oinarrituz. Gero, erabilitako baliabideak eta itzulpena egiteko liburuak zeintzuk diren jarriko dugu bibliografian eta lan honen gai esanguratsuenak ondorioetan bilduko ditugu lana behar bezala bukatzeko. Amaitzeko eta lan hau ahal den oberen eta zehatzen garatzeko, eranskin moduan *Li* obra euskarara itzuli dut, azalpenak ematen goazen heinean jatorrizko idazkiari erreferentziak egin ahal izateko. Bestalde, lan honen garapenerako aproposak iruditu zaizkidan zenbait eranskin txertatu ditut.

Idazlea marinela izateak xarma berezia emango dio bere literaturari orokorrean eta obra honi berezeki; uste denez, bere bidai batean eta han bizi izandako bizipenetan oinarritzen delako. Honek liburu hau eta mundu klasikoa elkar-lotzea errazten du, batez ere *Odisea*-rekin, biak bidai-liburuak baitira. Homerok idatzitako liburu honen XI. kantuan zentratuko gara, Hadeserako jaitsiera edo bidaia kontatzen den rapsodian, hain zuzen. Greziar literatura klasikoko epopeia ezagunenean garatzen diren hainbat elementu eta egoera Kabadiasen liburu honetan ere agertzen direla ikus dezakegu, aurrerago aipatu eta azalduko dugun moduan; Greziako 30. belaunaldiko idazleek influentzia handia jaso zuten mundu klasikotik, eta beraien idazki asko Homero bezalako idazle ezagunetan oinarritu ziren; ez osorik, baina badaude, lehen aipatu bezala,

oso beretsuak diren elementuak. Esate baterako, Kabadiasek Hadesaren antzeko paraje iluna deskribatu nahi duela dirudi *Li* obrako hainbat eszena deskribatzean.

Obra honetako marinela era oso metaforikoan mintzatzen da, eta bere hizkera eta esandakoei buruz hainbat azalpen ere emango ditugu. Honekin batera, emakumeek idazle honen literaturan daukaten eginkizun eta garrantziari buruz zenbait gauza azalduko ditugu, liburu hau era egokian ulertzeko beharrezkoa baita, eta, aldi berean, autore berak munduarekiko daukan ikuspuntua aditzeko ere. Gainera, idazle honen idazkerak ahozkoaren zenbait ezaugarri ditu, eta horri buruz ere jardungo gara lan honetan.

1. Sarrera

Jakin banekien, esperientzia bera bizi baino lehenagotik ere, atzerrian bizitzeak zeharo aldatzen duela munduarekiko daukazun ikusmoldea eta jarrera. Kanpoan zaudela zure etxea asko botatzen duzu faltan, baina aldi berean etxe berri bat aurkitu duzunaren sentazioa daukazu: 10 hilabetez nire etxea Gasteiz eta Ioannina (Grezia) izan ziren. Hiri oso desberdinak izan arren, hiri bietan bizi ziren (batzuk aldi baterako bakarrik) niretzat ezinbestekoak diren pertsonak, hiri biek daukate adierazezina suertatzen zaidan xarma. Erasmusa bukatzean, hain ondo jaso zaituen herrialde horren zatitxo bat zurekin ekartzen duzu bueltan, eta aukera izanez gero, bi herri hauek uztartzen dituen ekarpenen bat burutzeko ilusioa hazten da zure barnean. Hori da, hain zuzen, lan hau burutzera eta *Li* itzultzerantz motibatua nauena, Maialen Lujanbiok esan zuen moduan, *euskarak dena du aurka, eta horrexegatik justu dena du mauka; dena baitu sortzeko euskarak, ia dena du eta sortzeke; dena du egiteko euskarak, dena du egiteke.*

Itzulpena ez ezik, garrantzitsutzat jo ditudan beste hainbat alderdi ere garatuko dira lan honetan zehar, autore honen izaerak, bizi izandako esperientziak eta gertakizun historikoek bere literaturan izan duten eragina uler dadin. Kontuan hartu beharrezkoa da faktore oso garrantzitsu batek baldintzatuko duela bere literatura: marinela da. Honek kutsu berezia emango dio bai bere istorioei, bai bere idazteko modu bereziari, aurrerago azalduko dugun moduan.

Lan hau ahalik eta hobekien eta zehatzen burutzeko asmoz, literaturan eta batez ere autore honetan adituak diren liburu, artikulua zein gidaliburuak erabiliko ditut. *Li*

jatorrizko hizkuntzatik euskarara itzultzeko gaztelaraz eta katalanez idatzitako bi bertsiot aintzat hartu ditut. Batzuetan, itzultzea lan latza izan daiteke, batez ere jatorrizko hizkuntza eta itzulpeneko hizkuntza hain ezberdinak direnean; euskara eta grekera modernoa, esate baterako.

Aipatzekoa da nahiz eta autore ezaguna izan greziar literaturan eta baita europar literaturan ere, *Li* idazlanari konkretuki eskainitako bibliografia oso urria dela. Hau zailtasun bat bilakatu da lan honetan zehar, prestatuta neukan eskema garatzeko oztopo bat bihurtzera ere iritsita. Gauzak horrela, lan honekiko neukan ikuspegia aldatu eta jarrera kritikoagoa hartu behar izan dut. Gainera, dagoen informazio urria are eskasagoa da nik trebetasun osoz menderatzen ditudan hizkuntzetan. Hala ere, lan honen alderdi positiboetako bat dela deritzot, dauzkadan konpetentzia linguistikoak garatzen eta hobetzen lagundu didalako.

a) Autorearen bizitza

Nikos Kabadias 1910. urtarrilaren 11an jaio zen. Nahiz eta Mantxurian jaio, bere literatura grekeraz garatu zuen osorik. Bere gurasoak greziarrak ziren jaiotzez, Kefaloniakoak, baina aita merkataria izanik, denbora asko ematen zuten Errusian eta Ekialdeko Europan zehar bidaiatzen (Hernández de la Fuente, 2007); beraz, gure idazlea kasualitatez jaio zen herrialde txinatar honetan. Bere ama Dorothea Angelatos deitzen zen, eta bere senideak armadore lanetan zebiltzan. Anai bi eta arreba bat ere zeuzkan (Almirall, 2013). Haurtzaroan asko bidaiatu izanak ondorioak izango ditu bere etorkizunean, itsasoan emango baititu bere gaztaro zein heldutasuneko urte gehienak.

Txikia izanik, hamar urte eman zituen Europan zehar bidaiatzen: bere lehen bidaia luzea Ekialdeko Asiatik Greziara izan zen, ozeanoa zeharkatzen zuen lehen aldia. Hain izan zen garrantzitsua ibilaldi hau, non bere literaturan maiz egiten dion erreferentzia berarengan izandako eraginagatik (Hernández de la Fuente, 2007). Greziara iristean, bere familiarekin Kefaloniara joan zen lehengoz. Han bere anai txikia jaio zen (Almirall, 2013). Bertan zeudela, Lehenengo Mundu Gerra amaitzean, Kabadiasen aita Errusian desagertu zen, eta urte batzuk pasata, 1921. urtean, dirurik gabe eta gaixorik itzuli zen beraien bizilekura. Hori dela eta, Pireora¹ joan ziren

1 Pireo Greziako porturik handiena da, baita gaur egun ere. Herrialdea gainontzeko kontinente eta eskualdeekin konektatzen du. Gainera, hiri handi bat ere izan da betidanik.

bizitzera, eta bere bizitzaren lehenengo urteak bertan igaro zituen, bere amaren senideak familiak momentu hartan zeuzkan beharretaz arduratu ahal zirelako. Gauzak horrela, bertan hasi zuen eskola, eta ondoren baita batxilergoa ere; momentu hartan hasi zen literaturarekin erlazioa estutzen (Hernández de la Fuente, 2007). Eskola hasi zuenetik erakutsi zuen idaztearekiko zaletasuna; bere arrebarekin idazle izatera jolasten zuten (Almirall, 2013).

Hogei urte zituela, batxilergoa amaitu zuenean, medikuntza ikasten hasi zen, baina bere aita gaixorik jarri zenez, ezin izan zituen bere ikasketak bukatu (Guitart Ribas, 2014). Gauzak horrela izanik, enplegua lortu zuen ontzi-enpresa batean. Behin lanean hasita, konturatu zen bulego batean lan egiteak ez zuela zoriontsu egiten; beraz, zeru-lurrak astindu zituen marinel bilakatzeko aukera izan zezan. Bere lehen bidaia itsasgizon moduan *Polikos* izeneko ontzi batean izan zen, 1930. urtean. Esperientzia honetan bizitakoei esker, *Marabu* poema-bilduma idatzi zuen 1933. urtean (Hernández de la Fuente, 2007).

1939. urtean irрати-operadore ziurtagiria lortu zuen, nahiz eta hasieran kapitain izateko asmoa zuen (Hernández de la Fuente, 2007). 1953. urtetik aurrera irрати-telegrafista bikaina bihurtu zen (Almirall, 2013).

Bigarren Mundu Gerra piztean, albaniako mugan egon zen armada greziarrek, italiarren erasoak geldiarazteko. Alemaniarrek Grezia hartu zuten. Sasoi hartan Kabadias lehorrean gelditu zen, Atenasen, eta KKE-ko, Greziako Alderdi Komunisteko, kide egin zen (Guitart Ribas, 2014). Lur idorrean ez zuen inoiz etxe propiorik eduki, horregatik gelditu ohi zen bere arreba, ama edo ilobaren etxean sasoi batez itsasoa uzten zuen bakoitzean (Almirall, 2013). 1945ean, gerra bukatzean, *Korinto* izeneko itsasontzi baten tripulazio kide bihurtu zen. Oraingoan, ontzi honetan bizi izandako esperientziei esker, *Kalima* izeneko lana garatu zuen (Hernández de la Fuente, 2007). Momentu hartatik bere gainerako bizitza nabigatzen eman zuen (Guitart Ribas, 2014).

Adituek diotenez, heriotzak harrapatu baino lehen, 1975. urtean, itsasoan nabigatzen eman zituen bere azkenengo momentuak (Hernández de la Fuente, 2007).

Bere bizitza osoa itsasoan eman zuen, Mediterraneo Itsasotik ez ezik, ozeanoz haraindiko bidai luzeetan ere (Almirall, 2013). Batzuek bihotzeko batek jota hil zela

ziurtatzen dute; beste batzuk, ordea, garun-krisi bat izan zela kausa (Guitart Ribas, 2014).

Bere nortasunari edo ezaugarri fisikoei buruz gehien aipatzen dena apur bat totela zela da. Tatuajeak zaramatzan gorputz osotik: bizkarrean, besapeetan, sabelean eta ezkerreko besoan hain berezkoa zuen itsaslamiaren tatuajea (cf. 2. Eranskina, 19.orr.). Autore honek asko maitatzen zuen tatuaje hau; askotan, bakarrik sentitzen zenean, tatuaje hau begiratzearekin nahiko zuela ziurtatu zuen behin baino gehiagotan, beti bere alboan baitzegoen. Izaerari dagokionez, oso umila zen (Guitart Ribas, 2014).

Bere gela liburuz josia zegoen, eta denbora zuen bakoitzean orduak igarotzen zituen han sartuta. Marinela izanda, leku asko eta ezberdinak bisitatzeko parada izan zuen, aukera zuen bakoitzean berarentzako interesgarriak ziren museo, monumentu edo ikur historikoak bisitatuz (Almirall, 2013).

b) Testuinguru literarioa

Hasi aurretik, literatura baldintzatuko duten hainbat datu historiko laburki azaltzea garrantzitsua dela deritzot. Aipatu beharra dago ezegonkortasunak gure autorearen garai historikoa baldintzapean jarri zuela: greziar armadak Esmirnan bataila galdu zuen Atatürk-en aurka, eta ondorioz, Otomandarrek hiritar greziarrak hainbat urteetan bizi izandako lurraldetik bota zituzten eta herrialde honek inoiz jasandako hondamendirik handiena pairatu zuen. Gainera, Benizelos-en² gobernuak, 1929. urtean berrezarri zena, huts egin zuen 1932-ko hauteskundeak medio. Porrot honen ondorioa ezegonkortasun politikoa izan zen, eta ondoren monarkiaren berrezarkuntza. Hala ere, monarkia ez zen behar bezain egonkorra, eta horrek greziar gizartean tirabirak sorrarazi zituen. Ezegonkortasun hau Bigarren Mundu Gerra amaitu arte luzatu zen, 1970an gutxi gorabehera. Gauzak horrela, gizartea banandu eta bizitza intelektuala zeharo aldatu zen.

Honek, noski, banaketa politikoa ere ekarri zuen, eta alderdi politiko berriak jaio ziren: sozialistak, komunistak... (Beaton, 1994).

Identitate krisia sortarazi zuen honek, eta planteamendu berriak asmatu ziren greziar identitate eta estatuaren inguruan: krisi garai hartan, zer esan nahi zuen greziarra

2 Gaur egungo greziako pertsonaia politikoen artean garrantzitsuenetako dugu Eleftherios Benizelos. Lehen ministro izendatu zuten 7 aldiz, 1910. urtean hasita eta 1932. urtean bukatuz. Ideologia liberala zeukan.

izateak? Zer esan nahi zuen greziar herritarra izateak? Honi errefuxatuen auzia gehitu behar zaio, asko heldu baitziren herrialde honetara eta bertako pertsonak ez zuten guztiz onartzen (Beaton, 1994).

Banaketa politikoa dela eta, ezker eta eskuin alderdien arteko liskar oparo egon ziren, bi aldeek pentsamenduak oso muturrekoak bihurtu zirelarik. 1936. urtean eskuin-muturreko alderdi larderiatsu batek gobernatu zuen, mendetasunean oinarritzen zena. Honek, Ioannis Metaxas-en esku, estatu dikatorial bat sorrarazi zuen urte berean. Benizeloson aurkariaren diktadura faxista izan zen, Mussolini eta Hitlerren ildotik jarraituz (Beaton, 1994).

Garai honetako egoera politikoa nahasia izan arren, idatzi zen literatura gehienak ez zuen politika gai nagusitzat hartu (Beaton, 1994).

Hortaz, literatura aldatzeko premia ikusi zuten idazleek, gehienek, behintzat. Helburu hau zeukaten autoreak Asia Txikitik iritsiak ziren, eta Greziara eramane zuten galdutako aberriaren irritsa: beraien esperientziak eta bizipenak kontatzeko beharra sentitzen zuten; printzipio estetikoak teorizatuz, poesia sortu nahi zuten. Horrela sortu zen 1930eko belaunaldia³. Talde honen barnean Iorgos Seferis, Odiseas Elytis, Satratis Myrivilis, Melpo Axioti eta gure Nikos Kabadias bezalako idazleak aurki ditzakegu. Talde honetako kideak poetak ziren gehienbat, prosalariak bazeuden ere (Villar Lecumberri, 2009). Kontuan izan behar da aldaketa hauek 1880ko belaunaldiak ezarritako kanon literarioei dagokienez burutu zirela:

*Izan ere, idazleek tradiziozko literatura ornamentazioetatik aske utzi zuten, eta Europako korrante literario berriek eraginda, literatura mota berri bat sortu zuten; eta, batez ere, poesia berri bat.*⁴

Iorgos Theotokas dugu belaunaldi honek eta honen idazleek izan behar zituzten ezaugarriak ezarri zituenena. Bere pentsamoldea *Ἐλεύθερο Πνεῦμα —Espiritu Librea—* (1929) izeneko obran garatu zituen. Asmo nagusia, lehen esan bezala, literaturaren erroa

3 Azaldu beharra dago belaunaldi honetan 1940. urterarte idatzitako obrak sartzen direla talde honen barruan, nahiz eta batzuk ondoren publikatu.

4 *Y es que estos escritores liberaron de la ornamentación la literatura tradicional, e influidos por las nuevas corrientes literarias europeas, crearon una nueva literatura, y especialmente, una nueva poesía* (Villar Lecumberri, 2009, 129. orr.).

aldatzea zen, eta horretarako europar influentzia jaso zuten txaubinismoaren⁵ aurkako pentsaera garatuz. Era honetan, idazleak beste belaunaldi eta literatura ezberdin baten partaide zirela barneratu zuten (Villar Lecumberri, 2009).

Hala ere, ezin da esan literatura mota hau 1935. urtea baino lehen hedatu zenik. Urte horretan *Ta Nea Grammata*, *Letra Berriak* izeneko aldizkaria sortu zuten. Garai hartako literatura mota ezberdinen nondik norakoak azaltzen zituzten; ez bakarrik greziar literaturan, baizik eta europar literaturan orokorrean (Beaton, 1994).

Belaunaldi honen bereizgarrietako bat hainbat mugimendu poetikoen aniztasuna da: poesia purua⁶, surrealismoa⁷, futurismoa⁸, hiperrealismoa⁹, sinbolismoa (poesia surrealista idazteko metodotzat)¹⁰, poesia soziala (hainbatetan kutsu metafisikoa zuena)¹¹, neurritasun poesia¹²... (Villar Lecumberri, 2009).

Idazle hauen literaturari esker *dimotiki*¹³ hizkuntza goratu zen, puristenek *katharevusa*¹⁴ erabiltzen jarraitu bazuten ere (Villar Lecumberri, 2009).

Literatura honen ezaugarrien artean aipatzekoa da helenismoarean ikuskera berri bat eman zutela: greziar herrialdea bakarra zen, bateratua, ez zuten bereizketarik egiten Grezia klasikoa edo garaikidearen artean, adibidez. Gainera, tradizio klasikoa berreskuratu zuten mundua ulertzeko ardatz bilakatuz. Greziar parajeak ere deskribatzen zituzten berriro: irlak, itsasoa... (Villar Lecumberri, 2009).

Lanaren zati honekin amaitzeko, Nikos Kabadias poeta berezi bat dela azpimarratzea gustatuko litzaidake. Jakitun gehienek talde honen barnean kokatu duten arren, autore honek ez zuen inoiz bere burua idazle multzo honen barruan ezarri. Hala ere, bertso-lerro tradizionala erabiltzeak toki bat aitortu dio 30eko belaunaldian (Guitart Ribas, 2014).

5 Txauvinismoa edo abertzakeria Nikolas Chauvinek hedatu zuen pentsamolde hau. Sinesmen nartzisista da, zeinetan pertsona batek bere aberria beste bat baino hobea dela pentsatzen duen; beraiena ez den sorlekua laidotzen dute.

6 Iorgos Seferis.

7 Theodoros Dorros.

8 Theodoros Dorros.

9 Nikos Engonopulos, Nikos Gatsos eta Andreas Embirikos, adibidez.

10 Odiseas Elytis.

11 Ianis Ritsos.

12 Iorgos Sarandaris.

13 XX. mendean liskar ugari jazo ziren hizkuntzaren barietateak zirela eta: alde batetik *dimotiki* edo herriaren hizkera zegoen, eta beste aldetik *katharevusa*, aldaera jasoa eta arkaikoa egiteko joera duena.

14 *Katharevusa* grekera modernoaren aldaera jasoa da. XIX. mendean garatu zen hizkuntza hau "garbitzeko" xedearekin, Erdi Aroan eta Bizantiar Inperioa desegin ostean pairatu zituen aldaketak zirela eta; garai Helenistikoko hizkuntzan oinarritzen zen.

c) Bere poesia

Nikos Kabadiasek idatzitako literatura greziarren memoria kolektiboaren zedarrri garrantzitsu bat bihurtu da; Homerok *Odisea* idatzi zuenetik, itsasoaren garrantzia bermatu du greziar gizarteak, eta ildo beretik jarraitu zuen gure idazleak: bere literaturak duen estilo pertsonal bezain atemporalak itsasoa eta gizakiaren zerizanaren garrantzia aldarrikatzen du; gizatiar erbestealdiek sortarazten dituzten sentimenduekin batera, borondatezkoak izan ala ez. Kabadiasentzako, burutzen dituen bidaiak errealitate ezberdinak ezagutzeko beste modu bat da (Hernández de la Fuente, 2007).

Gaur egun dakigunez, itsasoa eta Grezia poesiaren sinonimo dira; Homeroren *Odisea* abiapuntutzat hartuta, Argonauten bidaiekin jarraituz, Kabafisen *Itaka* poemaraino iritsi arte (Hernández de la Fuente, 2007).

Nerabezaroan hainbat artikulu idatzi zituen aldizkari ezberdinetan. Hasiera batean ez zuen bere izena erabiltzen testu hauek idazterako orduan, baizik eta *Πέτρος Βαλχάλας* —Petros Baljalas— pseudonimoa (Almirall, 2013). Horri esker bere hiriko literatura giroan murgildu zen; jakintsuek lehenengo momentutik zeritzoten etorkizun arrakastatsu bat edukiko zuela idazle moduan. Hala ere, bere hasierako poemek itsasoan idatzitako lanen oso ezberdinak ziren, azkenengo hauek xarma berezia baitzeukaten (Hernández de la Fuente, D., 2007).

Artikulu hauek idazten zituen bitartean, Kariotakis, Uranis, Kabafis, Baudelaire, Rimbaud eta Apollinaire bezalako idazleen lanak irakurtzen zituen; hori dela eta, beraien eragina nabaritzen da bere poemetan (Guitart Ribas, 2014).

1932. urtean *Pireoko Tribuna* izeneko aldizkarian hainbat idazlan argitaratu zituen: bere bidaiei buruzko apunte sorta, bizipenak, sentimenduak... (Almirall, 2013).

1933. urtean *Marabu* —*Μαραμπού*— izeneko poema-bilduma idatzi zuen, lehen aipatu dugun moduan. Esan daiteke tonua nahiko narratiboa dela, eta sentimendu nagusia tristura. Aurrerantzean, Kabadiasek berak hautatuko du *Marabu* ezizena bere buruari erreferentzia egiteko (Guitart Ribas, 2014). Lan honetan bertsogintza tradizionaleko elementuak erabili zituen: bertso-lerro dekapentesilabikoak. Bilduma osoan zehar itsasoan bizi den jendeari buruz hitz egiten du (Almirall, 2013).

Bigarren Mundu Gerra hastean idatziko ditu *Sto alogo mu* —*Στὸ ἄλογό μου*— (*Nire zaldiari*) eta *Tu polemu* —*Τὸ ὄ πολέμου*— obra literarioak, 1987. urterarte

argitaratuko ez diren arren. Lehen esan bezala, 1947-an, *Pusi —Πούσι— (Kalima)* idatzi zuen. Poema honek errima zorrotza azaltzen du, eta horrek 30. hamarkadako beste poetagileengandik (Seferis, Embirikos...) urruntzen du Kabadias (Guitart Ribas, 2014).

1954. urtean, nobelagile gisa aldarrikatzen da Kabadias, *Bardia —Βάρδια— (Zaintzaldia)* eleberria idatzirik, zeinetam autorearen alderdi gizatiarrena bermatzen den. Idatzi zuen nobela bakarra da (Hernández de la Fuente, 2007).

1968. urtean *Li —Λι—* obra idatziko du (Guitart Ribas, 2014), gure lan honen ardatza dena eta ondoren sakonago azalduko duguna.

Hil ostean, 1987an, hirugarren poema-bilduma argitaratzen da, *Traberso —Τραβέρσο—* deiturikoa. Honekin batera, *Li*, eta lehen aipaturiko *Sto alogo mu* eta *Tu polemu* ere publikatzen dira (Guitart Ribas, 2014).

Esan daiteke *Marabu*, *Kalima* eta *Traberso* direla Kabiadiasek mamitu dituen poema-liburuak. Hiru hauetatik lehenengo biak dira ezagunenak; izan ere, bera hil baino lehen 10 alditan baino gehiagotan berrargitaratu ziren, gaur egun 30 berrargitalpen egitera iritsi direlarik. Garai hartako marinel eta greziar askok idazle honek idatziriko lerroak buruz zekizkiten; *Marabu* liburuxkan kontatutako bidaiak osorik zekizkiten, eta gainera, itsas-gizon asko istorio hauekin identifikatuta sentitzen ziren. *Traberso* 1975an argitaratu zen, hil baino oso denbora gutxi barru (Hernández de la Fuente, 2007).

Horretaz gain, 70. hamarkadatik aurrera bere poema asko abesti bihurtu dituzte hainbat kantautore greziarrek (Hernández de la Fuente, 2007).

Hain da bere literatura berezia eta pertsonala, non askotan zaila den adituentzat ere bere idazteko era mugimendu literarioren batean kokatzea. Bere bizitza etengabeko bidai bat izan zen, Kabadias beti bizi izan zen sailkapen kanonikoen jitoan, kritikarientzat hurbilgaitz bihurturik; bere bizialdia itsasoan burutu zuen, noizbehinka bakarrik egun batzuk lur idorrean igaroz bere arreba maitea ikusteko (Hernández de la Fuente, 2007).

Gure poetak idatzi zuen literatura lirika greziar herrikoiarekin estuki loturik dago, baina aldi berean oso berritzailea da: beste poeta europar eta greziarren eragina nabarmena jaso ez ezik, tradiziozko bertso-lerroak ere erabili zituen, abangoardien une gorenean. Bertso-lerro mota hau hamabost silabakoa zen, maiz *politko* edo *dekapentesilabo* bezala ezagututa. Esanak esan, zuzen egongo ginateke formari

dagokionez, bere poesia tradizio literarioan ahaidetzen dela esango bagenu; azken batean lirika herrikoiak XVIII. mendean egin zuen gora (Hernández de la Fuente, 2007).

Beraz, Nikos Kabadiasen literatura betidanik izan da desadostasunarekin loturiko gaia; bere izaera umil eta xumeak bere burua 30eko belaunaldiko partaide ez kontsideratzea sorrarazi izan du. “Itsasoko poeta”, marinel gazte, erromantiko eta nostalgikoa:

*... beti bere baitan bilduta, bere garaiko gatazkekiko axolagabekeria nabarmena erakutsiz, barneko ozeanoetan zein errealetan murgilduta eta momentu hartako korrante literarioen kontra igerian...*¹⁵

Arrazoi hauengatik, badaude Vitti bezalako adituak, Kabadiasen obrak Kabafis eta Kariotakisen poesiaren artean kokatzen direla esaten dutenak, hain zuzen ere; izan ere, ekintzak deskribatzerako orduan, bien arteko nahasketa dela deritzote. Hainbatetan iraultzaile gisa deskribatu izan da bere literatura (Vitti, 1994).

Maiz, Nikos Kabadias bera da idazten dituen lanen pertsonaia nagusia; bere obren kopuru handi bat autobiografikoa da, itsasoan bizitako esperientziak eta irakaspenak garatzen dituelarik. Idazle honek idatzitako eleberri bakarrean, *Zaintzaldian*, irrati-telegrafista da pertsonaia printzipala. Pentsa genezake bere buruaz hitz egiten duela eta berak bizi izandako bizipenak garatzen dituela, hori baitzen bere lanbidea itsasoan zebilela (Almirall, 2013).

Bestalde, gai nagusiei dagokionez, nabarmentzen den gaia *ubi consistam* da, hau da, etengabean bere toki edo bizileku egokia bilatzen saiatzen den gizakia. Topiko literario honek pertsonen noraezko izaera bermatzen du; *Odiseatik* hasita Kabafisek *Itaka* idatzi arte agerian egon dena. Sarritan, barneko bidaiak paraje exotikoen bidez azaleratzen da (Hernández de la Fuente, 2007).

Halaber, *xenitiá* —ξενιτιά— sentimenduak, greziarrek deitzen duten bezala, munta handia dauka. Sentimendu honen oinarria atzerriratzea eta deserria dira. Honek kutsu malenkoniatsua eman dio itsasoko poetari; izan ere, nostalgia, bere zentzu etimologiko zehatza kontuan hartuta, etxera itzultzeak sortarazten duen mina da,

¹⁵ *...siempre ausente, con un aparente desinterés por los conflictos de la época, perdido en océanos reales o interiores y nadando a contracorriente de los movimientos literarios del momento...* (Guitart Ribas, 2014, 15. orr.).

Odiseok berak sentitzen duena Itakatik urrun egonda, eta, kasu honetan, Kabadiasek bere poemetan edo lanetan isaltzen duena. Bai Odiseoren eta bai Kabadiasen kasuan, sentimendua bera da. (Hernández de la Fuente, 2007).

Agertzen zaigun sentipen honetan, anbibalentzia paradoxiko bat aurki genezake: Kabadiasen kasuan deserria borondatezkoa bezain beharrezkoa da; bakardade osoan bizitakoa, poesia mota honetan marinelen irudiaren bidez irudikatzen dena. Boluntarioa da gizakiak berak hartzen duen erabaki bat delako, kasu honetan marinelen espiritu bidaiariak bultzatzen du gizaki bera bidaiatzera, hasi baino lehen bere bizitza eta barne-mundua aldatuko dituela jakinda. Beharrezkoa nostalgiak eragin handia daukalako gizakion adorean. Odiseok berak ere bazekien. Sorterrira heltzean, *mal du départ*-a berehala agertzen da, bidaiatzeko irrikak marinela bihotzmintzen duena lehorrean egonda; bidai bakoitzaren ostean dena aldatzen da, ezer ez da zen modukoa (Hernández de la Fuente, 2007).

Kabadiasen lehenengo etapa literarioan, *rebetiko*¹⁶ gisa ezagutzen den musika estiloarekin parekotasuna ezarri daiteke: portuko istorioak, desagerturiko emakumeak; amodio istorio triste eta krudelak, eromenez josiak, tatuajeak, ekaitza. Drogak eta inoiz ahaztuko ez diren emakumeak, burdel ziztrinak. Egoera guzti hauek lehen aipaturiko musika estiloan agertzen dira. Bizipen hauek autore honen lehen etapa literarioan antzeman daitezke. Era honetan, irakurlea tripulazioko kide bat bailitzan sentitzen da, zaintzaldia atsegin bihurtzeko norbaitek kontatutako istorioak bailitzan. *Marabu* liburuxka da poesia mota honen adierazle nagusia (Hernández de la Fuente, 2007).

Bigarren etapan, berriz, tonu intimoagoa igarri daiteke, *Kalima* poema-liburuak ezaugarritzen duelarik. Ezkertasunak poema gehienetan dauka eragina. Kabadiasek bizi izandako bizipenek liburu hau ilundu egin dute; ez da hain narratiboa eta oldarkeria nabaritzen da; bigarren etapa honek bere sentipenik latzenak isaltzen ditu, baita bere arima ere, gerra garaian idatzi baitzuen. Liburu oso ezkorra izanda ere eta bere sentimenduak zeharkako era batean azaltzeaz gain eta gerran parte hartuta, askotan esan da autore honek politikarekiko axolagabetasuna adierazten duela. Garai hartan, Grezian bizi izaten ari ziren egoera kontuan hartuta, oso zaila zen politika alde batera uztea: bi Mundu Gerrak, Balkanetako Gudak... Gauzak horrela, idazle hau ez zen gai politikoetan

16 XIX. mendean mendebaldeko Asiatik iritsitako musika estiloa da. Gizarteko pertsona behartsuenek garatu zuten, greziarrak beraien sorterritik bota zituztenean. Gai oso trajikoak lantzen ditu: desamodioa, drogak, kartzela...

sartu; baina esan daiteke guda ugariak ekarritako ondorio latzak ondo islatzen dituela, eta hori dela liburu honen ezkortasunaren kausa nagusia (Hernández de la Fuente, 2007).

Amaitzeko, *Traberso* poema liburua daukagu, *Kalima* liburuarekin konparatuta oso ezberdina ez dena, baina, dena den, sakonagoa. Zahartzaroko poemak dira eta horregatik dauka heriotzak rol hain garrantzitsua. Bere bizitzako memoriak kontzatzten ditu, bizipenak, bidaiak... *Filiporentzako Ipunekin* bukatzen da poema-liburu hau, bere ilobari, Filipori, dedikatu ziona (Hernández de la Fuente, 2007).

2. Nikos Kadiasiaren *Li*

Lehen aipatu dugun moduan, *Li* 1968. urtean izan zen idatzia. Kefalonian idatzi zuen, 35 urtez itsaso eta munduan zehar bidaiatzen egon ondoren, bere gurasoen jaioterrira itzuli zenean (Guitart Ribas, 2014).

Liburuxkan zehar kontaturiko esperientzia hain errealak eta hunkigarriak direla eta, ondoriozta dezakegu obra hau autobiografikoa dela, edo behintzat bere bizitza errealeko esperientzietan oinarritu zela lan hau burutzeko (Guitart Ribas, 2014).

Li obran zehar, Hong Kong-eko sanpanetako errealitate krudel eta latza bizi izan ahal du irakurleak bere haragitan; elementu ilun eta lohiak edertasuna bilatzeko nahiarekin nahasten dituelarik:

*Ustelekeriak eta debekaturikoak edertasunarekin, poetaren begiradak beti jarraitzen duena eta estilo arin eta zehatz baten bidez irudikatzea lortzen duena, partekatzen dute eszenatokia.*¹⁷

Nabari daitekeenez, istorio tristea da; hala ere, sentimentaltasuna alde batera uzten du momentu oro. Honek, Kadiasiak gertaerak deskribatzeko eta kontatzeko duen erari buruz asko esaten digu: umeak ez ditu etorkortasunez eta xumetasunez deskribatzen; Kadiasiaren eta umeen erlazioari dagokionez, ez da xalotasunik nabaritzen. Obra honetan bezala, bere gainontzeko poemetan eta bere senideei, batez ere bere ilobei, idatzitako eskutitzetan ere hautematen da (Almirall, 2013).

¹⁷ *La deprivación y lo prohibido comparten escenario con la belleza, que la mirada del poeta siempre persigue y que consigue plasmar con estilo sobrio y preciso* (Guitart Ribas, 2014. 17.orr.).

Obra honetan zehar marinel prototipikoaren kezka hauteman ditzakegu: itsasoa, ontzi-bizitza, portuak, alokaturiko maitasuna... Dena den, pertsonaia nagusia ez da idazlea bera, baizik eta Li izeneko neskatxa, obra honi berari izenburua ematen diona; autorearen narratzailea baino ez da, ikusitakoa deskribatzen duena (Almirall, 2013).

Marinelak Li ezagutzen duenean, ez du bakarrik neska pobre eta duin bat ezagutzen, baizik eta bihotz xahua duen neskatxa natural eta argia; hori da, gehienbat, marinela liluratzen duena (Almirall, 2013). Bitxia da bi pertsonaia hauek elkarrengan izan duten eragina; argi eta garbi ikus daiteke beraien artea dagoen estimua, batez ere idazlan honen amaieran:

- Eskerrak ordain moduan ematea jarrera dotorea da. Bi pertsonak harreman hain estua dutenean ez dago ezer ordaintzeko beharrik.

- Itzuliko naiz – esan nion.

- Ez da inor itzultzen; Dragoi ona behin bakarrik jaisten da gure etxeetara. Pertsona asko ez dira aldi bakar batean ere berarekin topatu. Nik, berriz, ikusi egin dut.

(cf. 1. Eranskina, 17.orr.).

Aipatu beharra dago obra honetan oinarriturik *Between the devil and the deep blue sea* izeneko pelikula filmatu zela 1995. urtean Marion Hänselek zuzendua (cf. 3. Eranskina, 19.orr.). Filma honetako pertsonaia nagusia Nikos deitzen da eta marinela da (gure autorearen bezala). Pertsonaia honek Hong Kongera egindako bidaiari kontatzen du, eta nola ezagutu zuen Li izeneko neskatxa eskale bat. Liburuan bezala, Lik bere burua eskaintzen du marinelarentzako lan egiteko, berarentzako eta nebarentzako janariaren trukean, noski. Hala ere, baidade jatorrizko obrarekiko hainbat desberdintasun: pelikulan, lur idorrera doazenean, bere aita eta amarengana doa; liburuan, berriz, bere neba, ahizpa eta aitarengana. Gainera, pelikulan, Nikosek emaztea eta semea utzi dituen drogazale gisa agertzen zaigu, liburuxkan hori aipatzen ere ez den bitartean.

a) Kabadiasen hizkuntzari buruzko zenbait apunte

Nikos Kabadiasek *Li* obran erabilitako hizkuntzari buruz hitz egiteko, bere jatorriari buruz hitz egiten hasi behar gara. Liburuxka honetan zehar hainbat esamolde

edo hitz agertzen dira txineraz idatzita. Pentsa genezake bere jatorria errepresentatzeko erabiltzen dituela; izan ere, esaera horiek txineraz adierazi arren, itzulpena grekeraz jartzen du jatorrizko testuan, eta itzulpenean ere era berean islatzen da:

- *Urrunetik. Zuek Hsi La Kuo (Grezia) deitzen duzuen leku batetik.*

Nire txinera ulertu zuen. Pozik jarri zen.

- *Txinera dakizu? Peiong-en (Pekinen) ikasi zenuen?*

- *Pu shih (ez). Baina Tung Sun Sheng-en (Mantxurian) jaiotzen.*

(cf. 1. Eranskina, 3.orr.)

Xelebrea da idazle batek greziarren baloreak eta mundua ikusteko era isladatu nahi izatea eta aldi berean, era egoki eta txukunean, bere jatorriari buruzko informazioa ematea irakurleak bi nazionalitate hauei buruz zerbait jakin dezan. Honek Kabadiasek literatura ikusteko duen pertzepzio bereziaz asko esaten du; datu oso esanguratsua da.

Era berean, erregistroari dagokionez, itsasoarekin erlazionaturiko teknizismoak eta marinel baten berezko hizkuntza modu oso apropos batean uztartzen dituela esango nuke. Horrek, erabiltzen duen hizkera arrunta bihurtzen du, baina aldi berean literarioa; hartzailea istorio hunkigarri eta xarmagarri honetan murgiltzeko modukoa, aldi berean edonorentzako eskuragarria eta ulergarria delarik. Hau da, beste behin, Kabadiasen estiloaren berezitasuna, irakurlea, edonor dela ere, bidaia honen partaide bihurtzen du, kontatzen dituen istorioak bere munduan murgiltzen zaituzte eta.

Aipatzekoa da autore honek pertsonaien hizkera islatzeari ematen dion garrantzia: ikus daiteke, adibidez, Liren hizkera marinelarena baina sinpleagoa dela, azkenengo honena, maiz, sinbolo eta metaforez josia dagoela, ondorengo atalean azalduko dugun moduan. Era berean, Karalambos kapitainak hitz egiten duenean ahozko hizkeraren transkripzio zuzena dela nabaritzen da; izan ere, hitzak ahozkatzen diren bezala adierazi ditu idazleak eta ez idatzi beharko liritekeen moduan. Hori dela eta, ondoriozta genezake beharbada kapitaina ere ez dela greziarra edo greziar analfabeto bat dela, eta hori dela berak esandakoak ahozkatzen dituen modu berean adieraztearen arrazoia. Kabadiasentzako idazkerak egia transmititzen du, baina hala ere, bere poesian literaturaren ahozko eredua erabiltzen du; idazle honen aburuz, hasiera

batean poesia egiaren eta aitormenaren idatzizko adierazpena izango balitz interpretatu zuen (Saunier, 2014).

b) Metaforak eta zenbait azalpen

Ez badirudien arren, idazlan honek metafora asko ezkututzen ditu hasieratik amaierara arte; liburu honen zenbait gai era metaforikoan garatzen dira obran zehar. Infernuarekin eta *Odisearekin* zer ikusia duten metaforak eta konparazioak hurrengo atalerako utziko ditugu, lanaren zati honetan beste gai batzuekin erlazionaturiko metaforak edo alderdiak azalduko ditugularik.

Nikos Kabadiasen literaturan emakumearen irudiak garrantzi handia dauka: batzuetan ikuspuntu erreal batetik abiatuz eta beste batzuetan fantasian oinarrituz. Adituek diotenez, bere obran zehar emakume ezberdinak irudikatu izan ditu, eta horrek bere poesia eta literaturaren bikaintasuna goraipatzen du (Saunier, 2014). Nolanahi ere, emakumeekiko duen ikusmoldea nahiko xelebrea da, eta nolabait atzeratua, batez ere genero ikuspuntua aintzat hartuta.

Emakumea bere buruarekin loturarik edo erlazorik ez daukan lurralderen batekin erlazionatzen du autore honek, eta gainera, emakumeak ez dauka lurralde horretako bizitzan integratzeko aukerarik; horrek berebiziko kontrastea sorrarazten du (Saunier, 2014). Metafora hau liburu osoan ikus dezakegu, baina batez ere marinela eta Li Hong Kong-era doazenean. Obra osoan zehar aipatzen den bezala, neskatxa ez da inoiz lehorrean egon, eta marinela hiri handi honetara joatea proposatzen dionean, baietz esaten du. Lik badaki bere bizitza sanpanetara loturik dagoela, eta neska txinatar gaztea izanda ere, bizialdi osoan txalupa batean bizi beharko dela; kaiolaturik dago, kasu honetan bere egoera ekonomiko eta soziala dela eta. Era berean, aipatzekoa da nahiz eta bere bizitza osoa ontzi txiki batean eta itsasoan bizitzen emango duen, ez zaiola ahalbideratzen, adibidez, arrantzalea edo marinela izaten, lanbide hauek gizentasunarekin baitadude loturik; segurua da, bere asmoak zeinahi ere diren, prostituta izan beharko dela. Hau esandakoaren adierazgarri da, ez zaio bere bizilikuarekin bateratzen uzten.

Egoera honek, aldi berean, modu metaforikoan bertako egitura sozialari buruzko nahiko informazio ematen digu. Idazki honetan zehar kontraste handiak egin ditu idazleak klase sozial ezberdineko pertsonen eta ohituren artean:

Jatetxe handiengan eseri ginen. Enbaxadako langile guztiak, H. K.-eko jende garrantzitsuena, abenturazale handienak, momentu hartan terrazetan jaten ari ziren. Lik bere lasto kapela berria kendu zuen, tapa biribila zeukana, eta gelatik buelta bat eman zuen.

(cf. 1. Eranskina, 12.orr.)

China Emporium-era heldu ginen, sekulako eraikina, Woolworth's dendaren antzekoa. Eskailera mekanikoak erabiliz igo eta umeen arropa zegoen solairura ailegatu ginen. Neska txinatar irribarretsu batekin utzi nuen eta zain egon nintzen. Ordu erdi barru, jantzita zeraman arropa goitik behera aldatu zuelarik, neskak niregana ekarri zuen. Bakarrik bere aurpegia geratu zen aldatu gabe. Inolako harrotasunik gabe.

(cf. 1. Eranskina, 8.orr.)

Bi pasarte hauetan, bere klase sozialeko neskatxa batentzat *ohikoak* ez diren zeinbait egoera bizi izaten ditu Lik; dena dela, jakinaren gainean dago eta badaki bere klase sozialeko neska batentzat ezinezkoa dela modu horretako bizimodua lortzea. Edonola ere, neskatxa aldakorra agertzen zaigu, edozein egoerara molda daitekeena.

Liburuxka hau aurrerantz doan heinean, Li eta marinelaren arteko harremana are estuagoa bilakatzen da, baina badago deigarria suertatu zaidan zerbait: Li, bizi den egoeran bizita, segurua da prostituta bihurtu beharko dela, eta marinelak hori badaki. Garai hartan emakumeek pairatzen zuten egoera kontutan harturik, eta batez ere prostitua izanda edo prostituta izateko bidean egonda, nolatan ez zen saiatu marinela berarekin sexu-harremanak edukitzen? Azalpena honakoa da: autore honentzako emakume *apropos* edo *behar den moduko* batek ez du sexu-harremanik edukitzen, berez sexu harremanei uko egiten die. Gainera, *benetako* emakumeek ez dute maitasunagatik sufritzen (Saunier, 2014). Li deskribatzean *benetako emakume* bat irudikatu nahi izan du eta hori dela eta ez da saiatu marinelarekin harreman-sexualak edukitzen (hori espero

beharko litzateke gehiengo emakumeengandik, Kabadiasen ustez), neska *ona* delako eta harreman mota hauek eta amodioa alde batera uzten dituelako. Zortzi urte besterik ez izan arren, hori da egokitzen zaion patua; izan ere, Kabadiasen liburuetakoko pertsonaia guztiek daukate finkaturiko patua (Saunier, 2014); batez ere emakumeek, garai hartako egoera pairatzen zutelarik. Kasu honetan, marinelak abstinentzia erotikoa aitortu arren, neskatxaren bertutea defendatzeko beharra ikusten du (Saunier, 2014).

Emakumeek rol garrantzitsua bete arren, badaude beste motatako metaforak eta azalpen bitxiak: dragoiarena, esateko baterako. Idazlan honetan zehar animalia honen irudia maiz azaldu zaigu, amaierako zatian bere agerraldia nabarmenagoa izan den arren. Ekialdeko kulturaren zoriontasunarekin eta oparotasunarekin erlazionatu izan da eta mundu magikoarekin dauka lotura; hainbatetan gizakion zoria ere kontrolatzen duela esan izan dute (Newton, 1923).

Idazle hau oso trebea da sentimenduak metaforikoki kolore eta paisaien deskribapenak erabiliz deskribatzen (Saunier, 2014).

Momentu hartan agertu zen irla: garaia, berdegunez estalia, jauregiz josia, hodeien parpailak izango bailiran.

(cf. 1. Eranskina, 1.orr.)

Heldu beharreko tokira iritsi berri da eta ez daki nolako esperientzia biziko duen. Deskribapen honek itxaropena irudikatzen duela esango nuke.

Erreten arrosakara ernatzen duen lore bat balitz bezala.

(cf. 1. Eranskina, 6.orr.)

Kasu honetan, berriz, arrosa kolorea erabili du sexuarekin erlazionaturiko lotsa deskribatzeko, gai honekiko apaltasuna erakusteko asmoz.

Azkenik, liburuxka honen amaiera oso esanguratsua eta nabarmena dela deritzot: marinelaren bidaia aduana batean bukatzen da. Aduana beste mundu baterako bidaia irudikatzen duela uste dut, marinelaren berezko bizitza, leku batetik bestera etengabe bidaiatzen.

c) Li eta mundu klasikoa

Ingurune literarioan aipatu dugun moduan, 30. belaunaldiko poetek erlazio estua zuten tradizio klasikoarekin. Hori dela eta, atal honen helburua Kabadiasek *Li* obran zehar tradizio klasikoari (mitologia, literatura...) egin dizkion aipamenak azaltzea eta aipamen hauen intepretazioa egitea da. Konparaketa honen ardatza mundu klasikoa izango da, hain zuzen ere Homero *Odisea* eta obra garrantzitsu honetako X eta XI. kantuetan islatzen eta deskribatzen den Hadesa.

I. *Homero, Kabadiasen gidari*

Homero *Odisea* idatzi zuenetik itsas bidaiek garrantzi handia izan dute literaturaren historian, eta obratxo hau, honen islada argia da. Maiz, bidaia hauek protagonistaren birsorkuntza eta hazibide prozesuan hartzen dute parte; errealitate eta kontzeptu berriak ezagutzera laguntzen dutelarik (Simon, 1994).

Gauza bera gertatzen da *Li* liburuxkan: hasieran esan genuen moduan, Kabadiasentzat itsasoko bizitza errealitate berriak ezagutzeko modua da, eta bere burua ezagutzen errazten duen baliabidea; gure autorearentzako bizitza eta bidaiatzea bata bestearen ondorio dira, eta hainbat momentutan, sinonimoak (Albuquerque-García, 2011).

Gauzak horrela izanik, ezin genezake uka bai *Odisea* eta bai Nikos Kabadiasen literatura gehiena, kasu honetan *Li* obra, bidaiekin erlazionaturiko obren barnean koka genitzakeela. Argi dago bi maisulan hauek elkarren antza daukatela. *Odisearen* XI. kantua izango da atal honen ardatza, geroago azalduko ditugun zenbait arrazoirengatik. Honek ez du esan nahi beste kantuen aipamenak jarriko ez ditugunik.

Nabarmendu beharra dago *Li* obran pertsonaia nagusia den marinela itsasontziz heltzen dela beharreko tokira, eta baita Odiseo ere. Honek esan nahi du bi idazlanak itsasoan zein lur idorrean garatzen direla. *Odisea*-ren kasuan, kantuen hasiera eta amaiera baino ez dira itsasoan burutzen (Homero, *Odisea*, XI, 1-13, 636-640). Esan beharra dago kasu honetan lehorrean gauzatzen den atalak daukala garrantzi gehien, Hadesarekin eta han bizi diren arimekin lotura duena, hain zuzen ere. Esan genezake atal honen egitura biribila dela: itsasoan hasi eta itsasoan bukatu. *Li* obran ere

Kabadiasek egitura bera erabili zuen. Liburua marinela helduerarekin hasten da, eta hortik aurrera istorioa lur idorrean kontaktzen du autoreak; amaieran, *Odisea*-ren antzera, itsas gizonak alde egiten duenerarte, momentu hartan itsasoa agertzen zaigu berriro ere. Azpimarratu beharra dago bigarren obra honen kasuan itsasoa momentu gehiagotan agertzen dela; izan ere, lehenengo orrialdeetan denbora dezente ematen dute itsasoan, Li sanpanetan bizi baita; marinela, bere ontzian. Hala ere, istorioaren erdiko atalean Hong Kong-era doaz, lur idorrera, liburu honen zati mamitsuenera (cf. 1. Eranskina, 8.orr.).

Hauteman daitekeen beste antzekotasun bat Li eta Odiseoren aitak dira. Hau da *Odisea*-n Odiseoren aitari buruz aipatzen zaiguna:

Tu padre, entretanto, en el campo se está, nunca baja al poblado. Sus lechos no son catres ni mantas ni colchas de telas brillantes: en invierno su cama es la misma en que duermen los siervos, la ceniza al amor del hogar con sus pobres vestidos; mas, llegada la buena estación y la rica otoñada, cuando, al halda del monte en que tiene el viñedo, las hojas al caer van formando por tierra sus rústicos lechos, allá vase a dormir con su pena. Su angustia se acrece añorándote a ti, pues la dura vejez se le acerca

(Homero, *Odisea*, XI, 286-288) (Jose Manuel Pabón-en itzulpena).

Li-n, berriz, honakoa da bere aitari buruz aipatzen dena:

Inguruan hainbat arlote lurrean eserita zeuden. Besteek, etzanda, lo egiten zuten. Neskatoak etengabe hitz egiten zuen beraiekin; galdezka bazebilen bezala. Petrilean eserita zegoen norbait seinlatu zioten. «Lehoiaren sinboloa» zeraman begien artean. Ezpainak eta hatzamarrak handituta zeuzkan.

(cf. 1. Eranskina, 10.orr.).

Bi deskribapen hauek elkarren artean oso beretsuak diren hainbat gauza tartekatzen dituzte, baita desberdinak direnak ere. Hasteko, esan genezake bi deskribapenek irudikatzen dutela aita pobre edo behartsu bat: lehenengo kasuan lurrean lo egiten duela dio, esklaboek bezala, eta bigarrean ere hori ematen du aditzera: egoera bat deskribatzen du, bere aitarekin lotura zuzena duen errealitatea. Gainera, biek

gaixotasunen bat pairatzen dute: Odiseoren aitak bera Troiara joan izanak sorarazi duen atsekabea, eta Liren kasuan ezezaguna zaigun gaitza, ez baita deskribatzen *ezpainak eta hatzamarrak handituta zeuzkala* esaten duen arren. Aurrerago esplizituki aipatzen zaigu gaixo dagoela, legenardun bat balitz bezala (cf. 1. Eranskina, 10.orr.).

Obra hauek uztartzen dituen beste elementu bat ura da, bietan agertzen baita oinarritzko osagaitzat. Odiseok zuloa egiten duenean ur garbia botatzen du honen barnean, urak oso erlazio estua baitauka heriotzarekin zer ikusia daukaten kontuekin (Fernández Hoya, 2006):

*... libamos allí mismo al común de los muertos primero de todo derramándoles
leche con miel y después vino dulce, finalmente agua pura*

(Homero, *Odisea*, VI 25-28) (Jose Manuel Pabón-en itzulpena).

Dena den, kontuan edukitzekoa da nahiz eta kasu honetan osagai garbitzailatzat aurkitu, beste hainbatetan *infernuko urak* deskribatzeko erabiltzen du: kaltegarriak, hotzak etab., edozein modutan ohiko bizitzarekin bateraezinak direnak. Honek infernuari kutsu heze eta zingiratsua gehitzen dio, azken finean usteltzearekin lotuta dagoena eta, beraz, heriotzarekin (Fernández Hoya, 2006). *Li*-n, aldiz, bi zentzu hau modu metaforikoan uztartzen dituela esango nuke:

*Ibai luze batek Txina handia garbitzen zuen, eta zurrunbiloak sortuz,
kontrabandistak, urdangak eta gizagalduek arrainak bailitzan eramaten zituen
uhaldietan; bi haztegi handietan utzi arte, Hong Kong eta Macau izeneko bi
zingira horietan.*

(cf. 1. Eranskina, 16 .orr.).

Txinan montzoiak urtean bitan pasatzen ziren, eta hiria garbitzen zuten; izan ere, uretan biltzen zen zikinkeria kentzeaz ez ezik, lurrak ere berritzen zituen; bizi berria ematen zion ibaiari, Nilok egiten zuen antzera. Era metaforikoan, montzoi hauek hiriarentzako atseginak ez diren pertsonak eraman egiten ditu. Beraz, aldi berean elementu garbitzailea eta zingiratsua dela esan genezake, montzoiak iritsi arte pertsona hauek hiritik edo uretatik bueltak ematen baleude, ukitzen zuten edozer kutsatuko balute

bezala. Hori da Kabadiasek metafora honekin sorrarazi duen irudia. Gainera, lehen aipatu bezala, bi idazlanak itsasoan garatzen dira momenturen batean.

Bi obren hasierak era beretsuan irudikatzen zaizkigu: paisaiaren deskribapenarekin. Bidaiak ardatz direneko obra hauetan deskribapenak ugariak dira; tokienak ez ezik, pertsonaienak ere bai. Lehenengo lerroetan Homerok lekua nolakoa den azaltzen digu (Homerok, *Odisea*, XI, 14-19). Nahiz eta pasarte hau infernura *jaisten* direnekoa den, ez du infernua bera deskribatzen, baizik eta Zirzek esandako lekura heltzean zer ikusten duen. Kabadiasek gauza bera egiten du: Hong Kong deskribatzen du, heltzean daudela zer ikusten duen argitzen digu (cf. 1. Eranskina, 1.orr.). Deskribapenak ez dira zeharo berdinak, eta Kabadiasek tokia hodeitsua dela esaten ez duen arren, aurrerago beraien helduera lanbrotsua dela ziurtatzen du. Lanbroak hodeien antzeko sentazioa eragin dezake, leku laiotz batena, alegia. Agerikoa da Homerok infernuaren antzeko sentazioa sorrarazi nahi zuela, baina Kabadiasek? Ba al dauka idazti honek infernuarekin loturarik? Nik baietz esango nuke.

1. Infernuko ate joka

Maybe this world is another planet's Hell.

Aldous Huxley

Infernuak *Li*-n eragina duela esaten dudanean, ez deritzot Hong Kong bera edo Kabadiasek deskribatzen duen paisaia infernua bera dela; argitu nahi dudana da Homerok XI. kantuan deskribatzen dituen hainbat elementu edo egoera Kabadiasek berak ere liburuxka honetan deskribatzen dituela modu oso beretsuan.

Aipatzekoa da, Odiseo bera ez dela infernura jaisten, hildakoen arimak berarengana igotzen dira pertsonaia nagusiak sakrifizioa burutzen duen ostean. Hau esanda, argitu daiteke *Odisea*-ren kapitulu honetan ez dela *katabasis*¹⁸ bat burutzen zentzu hertsian, infernua berarengana dator, hildakoak hondartzan egiten duen zuloatik ateratzen baitira, lehen esan bezala. Gauza bera gerta liezaioke Liri, nahiz eta infernuan

18 *Katabasis*-a nolabaiteko jaitsiera da, zentzu oso zabala dauka. Literaturan, ordea, hitz hau infernurako edo azpimundurako jaitsiera irudikatzeko erabili izan da. Greziar mitologian eta literaturan askotan agertu da.

ez egon, infernuko paisaia eta bertako kideak ageri zitezkeen kontakizun honetan, aurrerantzean azalduko dugun moduan.

Hasteko, bi obrak uztartzen dituen gertakari batean zentratzea gustatuko litzaidake. Li ezin da sanpanetatik atera bere egoera ekonomikoa dela eta; berez, neskata ez da inoiz lehorrera ere jeitsi, *tanka* klase sozialeko herritarrek debekaturik baitute beste edonon bizitzea, Hong Kongeko legislazioak galarazten dielako bere klase sozialekoak ez direnekin bizi-erlazioa suspertzen (cf. 1. Eranskina, 3.orr.). *Odisea*-n gertaera edo egoera beretsua suma dezakegu: Odiseo izan ezik, Hadesera jaisten den inor ezin da berriro hortik atera, hildakoen arimak infernuan geratu beharra daukate, ez dute ihesbiderik. Jakina denez, bizialdian pertsona bakoitzak egindako ekintzen arabera, infernuko parte batera edo bestera joateko aukera izango lukete, baina inoiz ez hortik ateratzekoa. Aipatzekoa da are zailagoa dela bizidunentzat Hadesera jaistea: Odiseok bere amarekin hitz egiten duenean harridura azaltzen du (Homero, *Odisea*, XI, 155-160), baina epopeia bateko heroia denez, hortik ateratzeko ahalmena dauka:

*Hadeserako sarbidea hain da konplexua non izaki bizidunak bertara iritsi ezin diren, itzulera ere ezinezkoa bihurturik; Ulisesentzako izan ezik, Zirze eta Tiresiasen laguntzari esker hortik ateratzea lortzen duena.*¹⁹

Infernuaren deskribapen fisikoari dagokionez, Homeron oso urria da, baina badaude aipamenak (Fernández Hoya, 2006). Kokapena Zirzek zehazten digu X. kantuan, toki honi buruzko hainbat zehaztapenekin batera: ozeanoa zeharkatu behar dela, adibidez (Homero, *Odisea*, X, 503-515). Honekin batera eta lehen adierazi dugun moduan, Odiseok lekuaren deskribapen labur bat egiten du aztiak zehazturiko parajea ikusten duenean: zaila da bertan sartzen; iluna, zingiratsua, tristea eta hotza da, idazlanean zehar aipatzen den moduan. *Li*-n azalpena oso beretsua da baina zentzu ezberdinean. Ez du esplizituki esaten, baina aipamen ugari egiten ditu, «Sanpanetan loreak ez dira hazten» (cf. 1. Eranskina, 6.orr.) esaten duenean eta aintzat hartutik loreak bizitzaren sinbolo direla, edo aita bizi den komun publikoak deskribatzen dituenean, edo sanpanetako bakardade mingarria sentiarazten digunean, esate baterako.

¹⁹ *El complejo acceso al Hades, llega hasta el punto de convertirlo en el lugar que ningún hombre vivo había alcanzado y del que es imposible regresar si exceptuamos a Ulises, que lo logra con las indicaciones de Circe y Tiresias* (Fernández Hoya, 2006, 6. orr.).

Beraz, argi genezake nahiz eta bi obretako deskribapen geografikoak estilo ezberdinean azaldu, sortarazten duten sentrazioa oso beretsua izan daiteke: beldurra, atsekabea, pena.

Li liburua hasi eta lerro batzuk aurrerago, greziar kultura klasikoan hain ezaguna den Karonteri egiten zaio aipamena marinela Liri hildakoekin zer egiten duten galdetzen dionean eta neskatxak «hildakoen txalupa etortzen da» erantzuten dionean (cf. 1. Eranskina, 3.orr.). Dakigunez, Karonte infernuko txaluparia da, hildakoen arima alderraiak Akeronte ibaiaren alde batetik beste eramateaz arduratzen dena. Hilobiratu gabeko arimak ezin zitzakeen ibaiaren beste aldera eraman. Pertsonaia esanguratsua izan zen Eneas, Birgilioren *Eneida*-n, infernura jeitsi zenean, eta geroago, Dante, *Eneida*-n oinarriturik, *Jainkotiar Komedia*-n infernura jaisten direnean, eta, bi obretan, Karonteren irudia berriz agertzen denean. *Odisea*-n ez zaio erreferentzia zuzenik egiten, baina greziar mitologiako pertsonaia hain garrantzitsua izanik, *Li* liburuko pasarte honetan lotura oso estua ikusten da infernuarekin.

Nabarmena da bi idazki hauen pertsonaiantzako gogobetegarria izan dela bizi izandako esperientzia, *katabasis*-a, alegia. Odiseori dagokionez, bere helburua Hadesera jaistea zen Tiresiasekin hiz egiteko xedea izan zezan, eta hori lortzeaz gain, bere amarekin ere hitz egiten du (Homero, *Odisea*, XI, 150-224), Agamenonekin (Homero, *Odisea*, XI, 385-464). eta hainbeste miresten duen Akilesekin (Homero, *Odisea*, XI, 470-537). Li, berriz, Hong Kong-era doanean, bere hiru senideetakoekin hitz egiten du, eta horrek lasaitasuna sorrarazten du beregan.

Esandakoak esanda, pentsa genezake Kabadiasek Ereboaren antzeko paisai edo egoera bat irudikatu nahi zuela, era metaforikoan eta aipemenen bitartez irakurlea infernuan senti dadin. Marinela heltzen denean, beraien itsasontzia Kowlon eta Hong Kongen artean ainguratzen dute; izan liteke Hong Kong Ereboaren irudikapena izatea eta Kowlon Tartaroarena itsasoak, Akeronte ibaiaren sinbolotzat harturik, biak banatzen dituelarik? Hildakoak beste leku batera eramaten dituzte: Sanpanetan bizi eta gero edo Erebon 100 urte igaro ostean, dagokien tokira eramaten dituzte. Hong Kong-en bizi izan zuen esperientzia irakurleari sentiarazi nahi zion, eta kasu honetan, han sentitu zuen bizitasun eza, infernuarekin oso loturik dagoena.

3. Ondorioa

Lan honetan zehar maiz aipatu dugun moduan, Kabadias autore oso berezia da, eta horrek hain zuzen ere ematen die xarma bere idazlanei. Alde batetik, lehen aztertu dugun bezala, hizkera bitxia erabiltzen du, hitz teknikoak eta aldaera arrunta ezin hobeki uztartzen dituela, edozein irakurlek bere istorioa uler dezan eta argumentuan barnera dadin; azken batean, esan daiteke hizkuntza bere barne mundua deskribatzeko erabiltzen duela.

Bestalde, idazle honen literaturak mundu klasikoarekin lotura estua duela ikusi dugu lan osoan zehar, eta *Lik*, batez ere Homeroren *Odisea*-rekin. Kadiasek idatziriko hainbat pasartek *Odisea*-rekin korrelazioa daukatela ikusi dugu, batik bat Hadesarekin. 30. belaunaldiko idazle honek *Li* obraren istorioa deskribatzen ditueneko hainbat egoerek Homerok irudikaturiko atalekin harremana dutela hauteman daiteke, bien arteko konparaketa, zentzu metaforikoan bada ere, ezarri daitekeelarik.

Jatorrizko testua euskarara itzultzea hainbat momentutan odisea bat ere izan dela ziurta dezaket. Grekera modernoa eta euskara hizkuntza oso ezberdinak dira, eta jatorrizko testuko hainbat esamolde eta esapide euskaraz adieraztea zaila egin zait, jatorrizko testuko zentzu beretsua mantentzen ahalegindu arren. Itzulpena garatzeko gaztelaraz eta katalanez idatzitako itzulpenak oso lagungarriak suertatu zaizkit. Dena dela, bi hizkuntzetako trebetasun linguistikoa hobetzen lagundu dit lan honek, hasieran azpimarratu dudan moduan.

Amaitzeko, eta aurreko paragrafoan esandakoarekin jarraituz, lan honek nire garapen pertsonala zein akademikoa bultzatu duela adierazi nahiko nuke. Akademikoki, ez nekizkien gauza asko ikasi ditut eta gainera, neure buruarentzako erronka bat suposatzen zuen lan hau oso gustora burutzea lortu dut. Nire ustez, oso garrantzitsua da egiten duzun edozer gogoz eta irrikaz burutzea.

4. Bibliografia

Albuquerque, L. (2011): «El “relato de viajes”: hitos y formas en la evolución del género», *Revista de Literatura*, 145. zbk., 15-34.

Almirall, J. (2013): *Li i altres relats*, Bartzelona: Club editor

- Beaton, R. (1994): *An introduction to Modern Greek Literature*, Oxford: Clarendon Press.
- Cavadías, N. (2014): *Li*, Guitart Ribas-en itzulpena, Madrid: Editorial Funambulista.
- Fernández Hoya, A. (2006): «La estética del tránsito. Visión literaria del «infierno» en la Odisea y el poema de Gilgamesh», *Espéculo: Revista de Estudios Literarios*. 33. zbk.
- Hernández de la Fuente, D. (2007): *Nicos Cavadías “la cruz del sur”*, Madrid: Universidad Carlos III de Madrid, 1-13.
- Homero (2014): *Odisea*, Pabón Suarez de Urbina-ren itzulpena, Madrid: Gredos.
- Καββαδίας, Ν. (2010): *Αι*, Αθήνα: Άγρα (lehen edizioa 1987) .
- Newton, L. (1923): *The Chinese Dragon*, Shangai: Commercial Press.
- Saunier, G. (2004): *Έτοῦτο τὸ κορμὶ τὸ τόσο ἀρμαρτωλό... Έρευνα στον μυθικό κόσμο του Νίκου Καββαδία*, Atenas: Άγρα.
- Simon, L. (1993-1994): «El viaje con finalidad educativa: ejemplos de la literatura europea de la ilustración», *Cuadernos de estudios del siglo XVIII*, 3-4. zbk., 103-116.
- Villar, A. (2009): *Literatura griega contemporánea*, Madrid: SIAL.
- Vitti, M. (2004): *Η γενιά του τριάντα*, Atenas: Ermis

Eranskinak

a) 1. eranskina, itzulpena

- Ba heldu gara – xuxurlatu zuen Karalambos kapitainak. *Green Island*-etik gertu egon beharko ginateke. Baina ez dut ezer ikusten. Nire aitonak buelta emango luke.

Eguna argitzen hasia zen. Momentu hartan agertu zen irla: garaia, berdegunez estalia, jauregiz josia, hodeien parpailak izango bailiran. Pilotua heldu zen. Ni brankan negoen, maniobraren zain. Berarekin igo ziren neskak. Soka askatzen lagun ginduten, betidanik egin izan den bezala. Kapitainak megafonoa hartu eta ohiukatu ninduen:

- Nortzuk dira hauek?
- *Horietako* neskak dira – erantzun nion.
- Joan daitezela.

Ez nion erantzun; banekien zer gertatuko zen bestela. Zubian zalaparta zegoela ikusi nuen. Gidariak, neskak hortik botatzen bazituzten, alde egitearekin mehatxatu gintuen.

- Gera daitezela! – oihukatu zuen berriro megafonoak.
- Nortzuk? – galdetu nuen.
- Urdangak, alajaina!

Beraien laguntzarekin azkar bukatu genuen. Bizkorrak, zuhurak; kableak maneiatzan zituzten *konboloi*-ak²⁰ bailiran.

Itsasontziaren bizkarra prest egon bezain laster, beste zereginei ekin zieten: gure gelak potasarekin garbitu, ekortu eta hautsa kendu zieten. Portuko beste ohitura bat; bueltan ezer jaso gabe, beste behin. Eguerdian gure janaria beraiekin partekatu genuen eta arratsaldeko bostak jotzean, besterik zen. Gaueko musika isila. Diru-truke. Goizean kaian sartu ginen eta hurrengo egunean itsasontzia Koowlon eta Hong Kong artean ainguratu genuen, erosle berriei emateko esperoan eta handik joan ahal izateko.

- Ez daukate diru guztia prest – argitu zidan kapitainak – aste bat itxaron beharko omen dugula dirudi, baina zer gehiago nahi duzu zuk?

20 Konoboloi-ak arrosario baten antza duten greziar jostailuak dira. Denbora-pasa eta estresa eta antsietatea kontrolatzeko ere erabiltzen direla esaten da.

Bi hiriak estaltzen zituen laino baxuak ez zigun galarazi etengabe piztuta zeuden argi koloretsuak ikustea. Jangelan eserita nengoen, bakarrik. Momentu hartan agertu zen ate alboan. Zamaontziak olatuengandik basbesten zituen estribu altuak bere gorputza gerritik behera tapatzen zuen. Tinko begiratu zidan. Estua eta ahula, bere bizkarrean, muturretatik loturiko zapi batean – bi korapilo lepo azpian eta beste biak gerri inguruan – sei hilabeteko mutiko txinatar bat zeraman. Neskaren txirikorda makurrarekin zebilen jolasean. Sartzeko esan nion. Estribua dotoreziaz eta trebetasunez zeharkatu zuen inondik heldu gabe. Ohial alkandora eta praka beltz estuak zeramatzan; eta eskuan banbuz egindako kapela handi bat. Sorbalda mugituz haurtxo txinatarra bere bizkarrean ipini zuen berriro. 8 urte zituela zirudien. Bere aurpegitxo itsusia zen, baina ez zinen nekatzen etengabe dantzan zebiltzan begi horiek begiratzeaz.

- Zer nahi duzu? – galdetu nion.

- Zuretzat lan egin nahi dut hemen zaudeten bitartean – erantzun zidan ingelesez, enara baten txio-soinua balitz bezala.

- Zer dakizu egiten?

- Ekortu, garbitu... Galtzerdiak pasaratzen ere badakit.

Bere eskuak mintzatzen ziren; bere burua keinuen bidez ematen zuen aditzera.

- Janaria eman beharko didazu, niretzako eta nire nebarentzako. Ez dugu asko jaten. Ez gara garestia izango.

Mahai gainean zegoen plater bateko arrautzei irrikaz begira harrapatu nuen. Lau eman nizkion. Horietako bi poltsikoan sartu eta beste biak eskuetan hartu zituen. Joateko keinua egin zuen.

- Nora zoaz?

- Sanpanetara, nire etxera.

- Nola jeitsiko zara soka-eskalatik?

- Etorri eta ikusiko duzu.

Karelera heldu ginen. Inolako keinurik egin gabe, eskuetan zeuzkan bi arrautzak bota zituen, eta ondoren beste biak. Burua atera nuen eta bost esku pare zabalik ikusi nituen. Ez zen arrautza bat ere apurtu. Tximu bat balitz bezala jeitsi zen soka-eskalatik. Gure inguruan hamar bat jungu txiki zeuden. Garbitokia, jostundegia, kafetegia, aho-artatzailea, janari-denda, akupuntorea. Bakoitzaren banderak bere irudia zuen margoturik. Sanpan-burdelarenak hirusta hori bat zeukan. Gauetan banderak erriatzen

zituzten eta farolak jaso. Neskato txinatarraren sanpanak ez zuen ezer saltzen. Bere ideogramak honako hau zioen: “Eskaleen etxea”.

Bere nebarekin bueltatu zen handik gutxira, zapitik atera zuen eta soka biribilkiaren barnehuts batean utzi zuen kontu handiz. Nire aurrean oin-puntetan jarri zen altuagoa emateko.

- Beraz, zurekin hartuko nauzu?

- Noski. Nola duzu izena?

Gogoratu eta errepikatu ezin dudan zerbait esan zidan.

- *Li* deituko dizut – esan nion.

Ondo iruditu zitzaion.

- Zenbat urte dituzu?

Eskuak jaso eta hamar atzamar erakutsi zizkidan.

Ulertu nuen.

- Non jaio zinen?

- Hemen, Sanpanetan. Ez naiz inoiz lehorra jeitsi, itsasoan bizi garen beste hamar mila biztanleak bezala; *Tankak* deitzen digute. Ezin gara beste lekuren batean bizi. Estatuko legediak berak ere ez gaitu babesten. Batzuek dokumentu faltsuak erabiliz egin dute ihes hemendik. Autoritateek ez ikusiarena egiten dute.

- Eta Sanpanetan norbait hiltzen denean?

- Hildakoen txalupa etortzen da. Bela handiko jungu bat da. Itsasoan barrena doa, eta gorpuak hondorazten ditu.

- Ez litzaizuke gustatuko Hong-Kong bisitatzea? Hemendik ateratzea?

- Hemengoan ondo ezagutzen dut. Zazpi egunero irakaslea eta ipuin kontalaria etortzen dira; batak irakurtzen irakasten digu, eta besteak bi hiriei buruzko istorioak kontatzen dizkigu. Nahi baduzu auzo zailenera eraman zaitzaketa eta zu bueltan ekarri norabidea galdu gabe! Saiatuko gara? Eta zu... Nondik zatoz?

- Urrunetik. Zuek *Hsi La Kuo* (Grezia) deitzen duzuen leku batetik.

Nire txinera ulertu zuen. Pozik jarri zen.

- Txinera dakizu? *Peiong*-en (Pekinen) ikasi zenuen?

- *Pu shih* (ez). Baina *Tung Sun Sheng*-en (Mantxurian) jaio nintzen.

Zurturik begiratu zidan. Maleziaz barre egin zuen eta honako hau esan zidan:

- Ikusiko dugu... Noizarte geldituko zara hemen?

- Beharbada hamar bat egun.

- Nahi baduzu – erantzun zidan – denbora gutxian kantonera ondo ahoskatzen irakats diezazuket.

- Ez digu denbora emango. Hala ere, niretzat egingo duzu lan egun osoan zehar: nire kamaroteaz eta irrati kabinaz arduratuko zara. Zenbat nahi duzu?

- Eskaintzen didazun beste. – So eskatzailearekin begiratu zidan – Dena den haurtxoa nirekin eramango dut. Zintzoa da. Ez du negarrik egiten. Dauzkadan neba guztietatik bakarrik bera ezagutu dut, besteak joan ziren: batzuk arrantzaleekin...

Isildu egin zen.

- Ta gainontzekoak?

Pentsakor geratu zen.

- Falta dira. Nire ama hemen behean bizi da, aitona eta amonarekin batera.

- Goazen jatera – esan nion.

Jangelan sartu ginen. Arrautza gordin bat hartu eta berari eman nion. Zatitu eta bere nebari eman zion. Suge batek bezala irentsi zuen.

- Jan ezazu nahi beste – esan nion.

- Emaidazu – erantzun zidan.

- Aukera ezazu zure kabuz.

Zalantza egin zuen. Denetatik pixka bat hartu eta paper batean bildu zuen. Joateko keinua egin zuen. Indarrez, nire alboan eserrarazi nuen. Gaileta bat hartu eta bere ahora gerturatu nuen. Ezpainak estutu zituen.

- Zergatik ez duzu jaten?

- Etxera joan beharra daukat.

- Janzazu hau, gehiago emango dizkizut.

- Ematen dizkidazun besteak ere eramango ditut.

- Nork hezi zaitu horrela?

- Inork ez.

- Orduan?

Isiltasuna. Gaileta hartu, puska bat apurtu eta gogorik gabe murtxikatu zuen. Gehiengoa bere nebari eman zion, kaio batek bezala irentsi zuena.

Eskuak burura eramane eta pentsatzen geratu nintzen.

Beldurtuta hurbildu zitaidan.

- Damutzen zara – esan zidan – ez didazu lanik emango?
- Hori da promestu nizuna.
- Zuek joan arte?
- Azkeneko momentura arte.

Erratz bat eta pala bat hartuta, bizkarrera atera zen ume txinatartxo bizkarrean zeramala.

Arratsaldean irrati-kabinara igo nintzen. Garbi baino garbiagoa zegoen. Nire gela bezala. Neskatxa kaxeta batean zegoen eserita; haurtxoak bere belauen gainean egiten zuen lo. Altxatu egin zen eta umea bere bizkarrean hartu zuen.

- Zenbat liburu – esan zuen – zureak dira?
- Bai.
- Eta irakurri dituzu?
- Denak.
- Gauza asko jakingo dituzu orduan.

- Ez zuk baino gehiago – hausnartu nuen – eta ez dakidana zuri esker ikasten ari naiz orain, 40 urte edukita ere.

- Nik – esan zuen – irakurtzen badakit. Baina jendeak niri istorioak kontatzea gustatzen zait. Horrela hobeto ulertzen ditut. Gainera prismatiko zahar batzuk dauzkat. Hor goian, Peak-ean, zer dagoen ikus dezaket.

- Igo nahiko zenuke?

Ezpainak zimurtu zituen.

- Ez dakit – esan zidan –, oso zaila da. Lehorrera jeitsiko zara gaur gauean?
- Ez.

- Hortaz joan zaitez musikarien sanpanera. Beitu, *Ta Lo*²¹ bat bandera moduan duena da. Ni ez naiz inoiz sartu. Gauero entzuten dut musika. Musikarekin lokartzen naiz.

Sukaldera joan ginen. Gero soka-eskalatik jaitsi zen.

Gauerdian parranda egon zen. Eskaileran argia jarri genuen neskak etor zitezten. Arraunean heldu zen sanpana eta gela ezberdinetan sakabanatu ziren. Geroago, ontzigainera arnasa hartzera irten ginenean, itsasontzia neskez gainezka ikusi genuen, 300 bat izango ziren. Seinalea jeistea ahaztu zitzaigun. Hain baxu hitz egiten zuten non beraien ahotsak euri makalaren soinua ziruditen. Dena azaldu genien. Barrezka joan ziren. Gureak zirenekin geratu ginen. Madamak popan eserita zeuden, bildutako dirua zenbatzen.

Neska txinatarrek nire bizitza osoan ikusitako hanka politenak dauzkate. Erreten arrosakara ernatzen duen lore bat balitz bezala. Amesten duen begi erdi irekia bailitzan. Loratzean gora egiten du buruxka batek bezala. Mandarin gazte baten kokospekoaren antzera.

Egunsentian, gau hartan nirekin egon zen emakumeak alde egitea erabaki zuen. Ateratzean, Lirekin gurutzatu zen, ailegatzeko ari zela. Gelditu eta elkar agurtu zuten. Li sartu egin zen, eta haurra utzi zuen, honek zeukan ile eskasa orraztu eta jasmin-sorta bailitzan ile-motots batean bildu ondoren.

- Beitu – esan zuen – ez al da ederra? Lore-orrazkera deitzen da.

- Loreak noizbait ikusi dituzu? - Galdetu nion.

- Jakina! Askotan.

- Loreontzirik daukazu?

- Ez, sanpanetan loreak ez dira hazten; baina hirian loreen jaialdia ospatzen denean, jendez beteriko Sanpanak heltzen dira. Lorez beteta doaz eta itsasora botatzen dituzte. Guk girlandak batzen ditugu, horietako asko itsasoak berarekin eramaten baditu ere.

- *Green Island* – esan nion – lorez josia dago. Ez dago hemendik urrun, egon zara inoiz?

- Ez, baina ondo ezagutzen dut. Jungu handiekin bidaiatu eta itsasontziak arpilatzen zituztenak han bizi ziren lehen. Horietako jauregi batean gizon oso aberats

bat bizi da. Berrehun neskaxa inguru mantentzen ditu. Janaria eta arropa ematen dizkie, egun osoa kanpoan egoten uzten die, eta lorategitik ibiltzen dira. Gauean, emakume antza duten gutariko batzuk egoten dira zelatan. Neskaren batek ihes eginez gero, harrapatu, eta lotuta, itsasora botatzen dute.

- Esamesak besterik ez dira! – Esan nion – ipuin-kontalariak kontatu dizkizue, ziur nago.

- Ez, egia da! Noizik behin bere gizonak *arrantzatzer*a datoz gure etxera. Ederrenak hautatzen dituzte, eta beraiek zorte onekotzat jotzen dute euren burua.

- Beraiekin joatea gustatuko litzaizuke?

Bere gorputz txikia tentetu, eskuak bere bular gainean gurutzatu eta honakoa esan zidan:

- *Lao pu* (inoiz ez).

Buelta eman eta bere nebatxoa, nire oinetakoekin jolasten zebilena, begiratu zuen.

- Arrantzaleek ere ezin izango dute nire neba beraiekin eraman.

Negarrez hasiko zelakoan nengoen; baina txinatarrek hurbileko pertsonen aurrean egiten dute negar soilik. Hitz egiten zuen bitartean, neskaitila emeki oratu nuen, nire altzoan eser zedin. Uko egin zidan eta presaka alde egin zuen, lehenengoz ume txikia berarekin hartu gabe. Erreakzio horrek mindu ninduen. Neskak nire laztana gaizki ulertu izanaren beldur nintzen. Ez nuen denbora izan inolako ondoriorik ateratzeko; izan ere, momentu hartan bueltatu zen hamazortzi urteko herrikide baten eskutik helduta.

- Ni txikia naiz – esan zidan serio –. Oraindik ez naiz trebea ogibide honetan; bera, bai. Zuekin gauean datozenak lanbide bera duakate. Bera...

Azalpena eman nien.

- Eman iezaiozu zerbait, beraz, alde egin dezan, eta horrela ez da atsekabetuko. Arasa gainean txanpon batzuk neuzkan. Nahi zuena hartzeko eta neskari emateko esan nion.

- Zuk egin behar duzu – esan zidan–. Ezin dut nirea ez den dirua ukitu; ez ezazu edonon utzi, oso tentagarria baita.

Gauean, alde egiteko prestatzen zegoenean, hurrengo egunean nirekin hirira buelta bat ematera etorri nahi al zuen galdetu nion.

Begiak arranpalo jarri zituen.

- Benetan diozu?

Hatzamarrekin pagoda bat irudikatuz zin egin nion. Sinistu ninduen.

- Umea nirekin eramango dut.

- Ez, bueltan ekarriko diozu zerbait.

- Bai... Karameluz estalitako sagar bat eta paperez egindako oilar bat.

Eguna argitu baino lehen, nire esperoan zegoen jada eskalako karel-barandan. Bere ohiko arropa lisaturik zeraman. Ez zen inor ontzi-etxetik irten berari agur esateko. Txalupa heldu zen. Li nire alboan eseri eta abian jarri ginen. Ez zegoen ez pozik ez triste. Beti bezala. Pentsakor. Hamar minututan iritsi ginen *Connaught Road*-eko kaira. Lehorrera lehenengoz jaitsi zen neskatzak, lur hartzean, ez zion inori eskutik heltzen utzi ontzitik kanpo laguntza eskeini ziotenean. *Rickshaw* berdeen ilara bat esperoan zegoen. Ez zidan utzi biontzako bat alokatzen. Gorantz joan ginen, eta Hong-Kongeko kale zaratatsuenera iritsi ginen: *Queen's Road*. Ez ninduen txakurkume batek bezala jarraitzen; nire alboan zetorren, nirekin. Leku guztietara begiratzen zuen. Ez zirudien harrিতuta, ezta liliratuta ere. Hala ere, nik banekien bere baitan zegoela; izan ere, ibiltzen ari ginen bitartean, bat-batean pausatzen zen eta besaburuak altxatuz, aire korronte leun batek bere arima zeharkatu balu bezala.

China Emporium-era heldu ginen, sekulako eraikina, *Woolworth's* dendaren antzekoa. Eskailera mekanikoak erabiliz igo eta umeen arropa zegoen solairura ailegatu ginen. Neska txinatar irribarretsu batekin utzi nuen eta zain egon nintzen. Ordu erdi barru, jantzita zeraman arropa goitik behera aldatu zuelarik, neskak niregana ekarri zuen. Bakarrik bere aurpegia geratu zen aldatu gabe. Inolako harrotasunik gabe. Duintasunez bakarrik. Saltzaile lirainak poltsa bat eusten zuen “jantzita zeraman arropa da” esan zidan, *zahar* hitza erabili gabe. Bota zezakeela erantzun nion. Makurtu egin zen eta zerbait xuxurlatu zion Liri. Neskatzak poltsa kendu zion. Zentzugabekeria hutsa iruditu zitzaion bere arropa botatzea. Behintzat janzkiak hor uzteko eta arratsaldean hartzeko konbentzitu nuen. Ordainagiria hartu eta gorde zuen. Irten ginen. Gosaltzera joatea proposatu nion. Ezetz esan zidan:

- Lehenengo nire neba nagusia ikustera joan beharra daukat. Lehenengoz alde egin zuenean ni ume bat baino ez nintzen. Ez da inoiz gutaz oroitu. Nire amak mezu bat eman dit berarentzat. Berarengana joan behar naiz. Nahi baduzu horko ate handi hartan itxaron nazakezu, ez dut denbora asko behar izango.

- Badakizu nola iritsi? Lur idorrean ez zarela inoiz egon esan zenidan.

- Eta egia da; hona etortzen naizen lehengo aldia da, baina nire neba zu baino errezago aurki dezaket.

Neskatoa bakarrik uztearen beldur nintzen. Hiriaren mendebalderantz zihoan tranbia batean igo ginen. Errementeri batean jaitsi ginen. Zortzi urteko mutiko narras bat, aurpegi maltzurra zuena, agertu zen, eta hitz egiten hasi zitzaion agurtu ere egin gabe. Buelta eman zuen eta begi txarrez begiratu ninduen.

- Zenbat diruren truke erosi zenuen?

Ahal izan nuen lasaien aditzera eman nion ez nuela horrelakorik egin.

- Utzi koplak alde batera – esan zidan –; zenbat eman ahal didazu?

- Ezer ez.

- Orduan nirekin geratuko da. Erosi duzula ziurtatzen duen dokumenturik badaukazu, emaidazu zerbait ordainetan eta eraman ezazu hemendik. Horrela ez izatekotan arazotan sartuko zara.

Hitz egiten ari ginen bitartean, Li gu bion artean zutik zegoen, salto egiteko prest dagoen tigretxo bat bezala. Baina ez nire aurka.

- Egintzazu nahi duzuna – esan nion – baina azkar, presa daukat. Koldartzen hasia zela iruditu zitzaidan. Gogorik gabe irribarre egin zuen.

- Beno, neskatoa hartu eta banoa, esan nion.

Orduan, eskale baten aurpegi zakarra jarri zuen eta erreguz, txanpon batzuk emateko eskatu zidan. Gutxi batzuk atera nituen. Lik eskutik heldu zidan. Lurrera erori ziren eta mutikoa makurtu egin zen denak batzeko. Momentu hartan, bere arrebak kaleko lokatzez bete zituen ahurrak eta burura bota zion. Gizon bati egin ziezaiokeen irainik handiena zen; guretzat norbaiti tu egitea bezalakoa.

- Goazen – mintzatu zen ahapeka –, txakurrek kosk egiten dute. Orain nire aita bilatzera joango gara. Baina zuk nonbaiten, hemendik gertu, itxarongo nauzu; ez dut nahi zuk bera ikusterik.

- Zergatik?

- Ez dut nahi zuri nazka ematea. Ez dut gustoko.
- Zurekin joango naiz. Baina zergatik ez duzu nahi?
- Zuk zeuk ikusiko duzu, goazen!

Harrizko eskailerak igo genituen, kale estu batzuetatik sartu ginen, alde batetik bestera joan ginen. Li galderak egiteko gelditu zen askotan. Hainbat dendatik igaro ginen, sukaldatzeko prest zeuden sugeak ateetatik zintzilik zituzten askok, guk olagarro lehorrak eta sardinzarrak eskegiten ditugun moduan. Elikagai dendetako salmahaietan hainbat kristalezko pote zeuden, gatzuretan ipinitako labezomorroz beteak. Plaza batera iritsi eta han zeuden pixatokietan gelditu ginen. Inguruan hainbat arlote lurrean eserita zeuden. Besteek, etzanda, lo egiten zuten. Neskatoak etengabe hitz egiten zuen beraiekin; galdezka bazebilen bezala. Petrilean eserita zegoen norbait seinalatu zioten. “Lehoiaren sinboloa” zeraman begien artean. Ezpainak eta hatzamarrak handituta zeuzkan. Li bere alboan eseri eta eskua laztantzen hasi zitzaion ezer esan gabe, eta keinuak egin zizkidan zigarro bat eskatuz. Bere kabuz piztu eta ezpainen artean jarri zion. Brageta botoitzen zuen jendea sartu eta irteten zen. Batzuk txanponak jaurtitzen zizkieten, eta beraiek arrapaladan hartu. Aitak ez zuen ezer esaten. Lik hitz egiten zion, hitz egiten zion. Neskatxa deitu nuen. Aurrerapen bat ematea proposatu nion, itsasontzian egindako lanagatik. Onartu egin zuen. Dirua hartu eta guztia bere aitari eman zion. Alde egin genuen, eta denbora luzez isilik egon zen. Ahuntz bat bailitzan egiten zuen korrika nire aurrean. Ustekabean gelditu eta ni begiratzeko buelta eman zuen.

- Triste zaude? – Galdetu nion leunki.

- ... Ez da kutsagarria. Gau batean igerian joan zen; ez zuen guk bera ikusterik nahi. Bizi garen tokian pertsona askok daukate honako gaixotasun hau. Ez dira gaixo guztiak ospitaleetan sartzen. Gehienek, euriak busti ez ditzan, komunetan egiten dute lo gauean... ni ikusteaz poztu da. Laztandu egin nau. Zigarro asko erosi ahalko ditu. Eguerdian orga ibiltariek saltzen duten janaria jan ahal izango du. Berak nahi duena.

Ni bisitatzera inoiz edo behin datorren korapiloak eztarria estutu zidan. Ezin nuen negar egin. Eguerdia iritsia zen tranbiatik jaitsi ginenean. Pentsakor zegoen eta ez zion murmurikatzeari utzi.

- Orain, – esan nion – joan gaitezen te bat hartzera! Gero *Peak*-era igoko gara, mendi tontorrera, bertan bazkaltzeko.

- Oraindik ez. Nire ahizpa ikustera joan beharra daukat. Berarentzako ere mezu bat daukat.

Adreiluz eraikitako etxe zahar baten aurrean gelditu ginen, habeek sostengatzen zutena, tenplu baten antza zeukan. Teilatuak beherantz egiten zuen izurtuta, fatxada laranjatuak itzalez estaltzen zituelarik.

Hiru eskailerak igo genituen, biok oso urduri geuden, toki sakratu batean sartzeko zorian baiginan. Egongelara heldu ginen. Paretak zurezkoak ziren, aintzirez, zubi txikiez, pagodez apainduta. Kaxeta batzuetan neska gazte asko zeuden eserita, te tresnez josia zeuden mahai txiki batzuen aurrean. Txutxu-mutxuka zebiltzan. Li saloi erdian gelditu zen, neska guztiak behatu zituen eta zerbait ohiukatu zuen. Neska argal eta eder batek, bere tokitik altxatu gabe, besoak zabaldu zizkion Liri, eta beregana joan zen saltoka. Soinekoa alde batera eta bestera baztertu zuen bere hanka politik erakutsiz, neska erdian kukubilarazi zuen eta samurki besarkatu zuen. Neskak altxatu eta lekuz aldatu ziren, ahizpak bakarrik gera zitezen. Ni txoko batean eseri nintzen makurturik. Ezin nuen ezertan pentsatu. Eguerdia. Eguzki izpi batek bi ahizpak argiztatu zituen. Neskatoen aurpegiak begiratzen nituen, eta argia ematen zuten orduko, iluntzen hasiak ziren. Bat-batean ahizpa nagusia haserretu zela zirudien. Lik egiten zituen keinuengatik, zerbait eskatzen ari zitzaiola ematen zuen. Nagusienak astiro bultzatu zuen eta kaxeta batean eserrarazi zuen. Niregana hurbildu zen eta ikastetxe garrantzitsuetako ikasleek baino era gizatiarrago batean, gur egin zidan. Atzamarrak itxita zeuzkaten bi eskuak bularrean jarri zizkidan. Joan egin zen. Neska batek teontzia ekarri zuen eta katilua bete zidan. Denbora osoan Lik ez ninduen momentu batez ere begiratu. Beste neska batek sagar karamelizatuak eta kolore guztiekin margoturiko txitxirio txigortuak erretilu batean ekarri zituen. Lik txitxirio bat ahoan sartu zuen eta gainontzekoak paper batean bildu zituen. Ahizpa pakete txiki batekin iritsi zen. Li hartu eta bere magalean eseri zuen. Isildu egin ziren. Denbora gutxiren buruan, ahizpa nagusia altxatu zen eta besoak ireki nitzan keinuak egin zizkidan: neskatoa bi besoen artean jarri zuen. Segituan, berriro hartu eta lehiorantz eraman zuen, kainaberaz eginiko errezela igo eta Li kanpora eraman zuen, kanpoan zegoena ikusi zezan. Orduan, niregana etorri zen; belauak tolestu zituen, burua makurtu eta berriro jaso zuen; momentu hartan begietara sakonki begiratu zidan. Nire txanda zen, ni ere makurtu nintzen, txabusinaren bi muturrak jaso eta nire kopetan jarri nituen. Jakin gabe, (beharbada momentu hartan ni laguntzeko prest

zegoen eta zeharo ahaztuta neukan txikia nintzeneko oroitzapen bat agertu zitzaidan), beraien leinua ohoratzeko herrialde horretako dama garrantzitsuei bakarrik egiten zaien keinu bat egin nuen.

Neska guztiek biribil bat eratu zuten gure inguruan, serio zeuden, gurekin ados egongo balira bezala. Alde egin genuenean, Li ez zebilen oinez, baizik eta dantzan eta abesten.

Peak-era igo ginen, *Viktoria* menditik gora doan bagoiean eta landaretza hostotsuz beteta zeuden meharguneak igaro genituen. *Happy Valley* ikusi genuen, Baltzamoan duen Dragoiaren pagoda, eta gailurrera heldu ginen; urrutian lur idorra zegoen, eta, bere inguruan, uharteak. Teleskopio turistikoarekin *Bocca Tigris*-eko itsasartea ikusi genuen, eta *Pearl River*-eko bokale zuria, *Kanton*-eko estoldak botatzen duen ura egozten duena. Jatetxe handiengan eseri ginen. Enbaxadako langile guztiak, H. K.-eko jende garrantzitsuena, abenturazale handienak, momentu hartan terrazetan jaten ari ziren. Lik bere lasto kapela berria kendu zuen, tapa biribila zeukana, eta gelatik buelta bat eman zuen. Terrazetatik zehar sorgor ibili zen. Bueltatu zen.

- Gose zaude? – Galdetu nion.

- Ez.

Geroago ulertu nuen bere begiak zirela gose zeudenak, baina jakin-mina ez nabaritzeaz arduratzen zen. Txineraz idatzitako karta eman nion eta nik europarra hartu nuen. Zerbitzaria bere alboan zain egon zen denbora gutxiz. Ondoren eskaera egin zuen.

- *Abalone soup*²² (*Bow yü*), *Pay Daahn*²³.

Niregana itzuli zen.

- Eta zuk?

- Gauza bera, hain zuzen.

Lik kilimolo egin zuen.

- Arrautz txinatarrak jango dituzu?

- Bai.

- Noizbait jan al dituzu?

- Jakina.

22 Itsaski sopa.

23 Arrautz zaharrak.

- Ba al dakizu nola prestatzen dituzten?

- Ez, esaidazu!

- Zuetakoek gezurrak esaten dituzte. Entzuidazu. Hiru errauts mota prestatu behar dituzu: pinu, ikatz eta sahatsarena; te hosto, kare eta gatzarekin nahastu behar dira. Dena batera irabiatu behar duzu lokatz moduko nahasketa lortu arte, eta pixkanaka eta ukitu gabe, arrautzak banaka-banaka koilara batekin bota behar dira. Zeramika-ontzi handi batean sartzen dituzu. Beraien artean lurra jarri behar duzu, elkar uki ez daitezen; dena lurrez estali behar da. Eramaitzazu toki fresko batera eta utz itzazu hor ehun eguez; ehun bakarrik, ezta bat gehiago ere. Prestatzen dituzun bitartean ezin duzu hitz egin. Isiltasunaren legeari men egin behar diozu, ulertzen?

- Bai. Eta ondoren?

- Ekartzen dituzten arte itxaron behar duzu.

Arrautzak osorik zeuden; egunekoak, alegia. Baina apur bat arraro usaintzen zuten.

- *Chop Stick*-ak ez dira horrela hartzen, – esan zidan –; nik erakutsiko dizut.

Hitz egiten ari zen bitartean, eskua samurki hartu zidan.

- Goiko zotza mugitu behar duzu bakarrik, ahamena harrapatzeko; behekoa geldirik mantendu behar da. Baina nork erakutsi dizu biak batera mugitzen?

- Neska mantxuriar batek, Harbinen.

- Horregatik ez dakizu zotzak behar bezala erabiltzen. Berataz gogoratzen zara?

- Bai. Hamasei urte zeuzkan, txirikorda estu bat zeraman, eta gogoratu ezin dezakedan zerbaiten usaina zeukan.

- Zur ezea bezala?

- Baliteke.

- Guk hemen hegoaldean nola usaintzen dugu?

- Kamamilak bezala.

Ez zuen ulertu. Azaldu egin nion.

- Tea dela esango bazenit, ulertuko nizuke, baina ez dakit zer den esaten didazu gauza hau. Ez dut inoiz usaindu ere egin. *Ya p'ien yen*-a bezalakoa da (opioa)?

- Ez.

- Erre al duzu inoiz?

- Askotan.

- Gogoko duzu?
- Bai eta ez. Zuk noizbait probatu al duzu?
- Noski baietz.
- Hain txikia izanda?
- Hilean behin aititek pizten du eta denok erretzen dugu.
- Gustatzen zaizu?
- Bidaiatzea bezalakoa da, ulertzen?

Aldi berean jan eta hitz egiten zuen; txikitatik transatlantikoetan, trenetan eta jatetxe garrantzitsuetan nola portatu behar diren ikasi duten neska gazte zoriontsuak bezala. Labana eta sardexka erabiltzen zituenean hain trebe eta segurtasunez maneiatzen zituen, non haurtzain suitzarrek hezi zutela ematen zuen; eta hau guztia berehalako batean ikasi zuen *Peak Hotel*-eko galerietan zehar ibiltzen zelarik.

Une zailetan oso baldarra naiz – inoiz ezagutu dudan handiena –. Hutsaren peskizan gauzak esaten ditut, gainontzekoek, eta nik batez ere, gogoratuko dituzten gauzak; lo egiterako orduan burura etortzen zaizkit, eta oinazetu egiten naute. Nik neure buruari jartzen dizkiodan tranpak dira.

- Joaten naizenean nitaz oroituko zara? – galdetu nion –; nitaz oroituko zara?

Ez zidan erantzun. Zergatik esan nuen? Eskertasunez erantzun diezadan? Zenbat zor didan erakuts diezadan? Zein deabruk daki? Eta bere isatsarekin kilikatzen nau, momentu zoriontsua hondatzen du eta besteak niregandik urrutzea eragiten du.

Ez zuen hitzik esaten. Urrutira begiratzen zuen, *Lappa* irlarantz, nekez ikusten zena, *Macao* aldera. Bera bakarrik egongo balitz bezala hasi zen hizketan.

- Han *Bocca Tigris*-eko meharra dago; *Perla* ibaia, Whampoaraino iristen dena, Kantonen. Bertan gutarrek txurien kontra borrokatu zuten duela denbora asko. Beraiek kanoiak zeuzkaten. Guk, berriz, beraiek saldutako fusil zahar batzuk; baina ez genuen fusil hauekin bakarrik borrokatu, kolera izan zen gure arma. Gehiengoa baztangak jota hil zen. Gazteak ziren, ederrak, ilehoriak. Salbatu zirenak markatuta gelditu ziren bizitza osorako. Hauetako batek, mutiko batek, ez zuen etxera itzuli nahi izan aurpegia txikituta edukita. Hemen gelditu zen, arropa txinatarra janzen zuen, bere hizkuntza ahaztu zuen,

rickshaw-etatik tira egiten zuen *coolie*-ek bezala. Bere arrazako bezeroak ez zituen inoiz eramaten. Bakarrik txinatarrak. Nire aitona ezagutu zuen.

Hitz egiteari utzi zion. Samintasunak bere aurpegia estali zuen.

- Pena ematen dit – xuxurlatu zuen – ez dago ezer txarragorik norbaitengatik pena sentitzea baino. Eta ikaragarriagoa oraindik, norbaitek nazka ematea. Niri ez lidake nazka emango.

Damutu balitz bezala, Lik bere atzamar txikiak nire eskuan, adierazkortasunik gabe zintzilik zegoena, pausatu zituen. Besterik ez. Alde egin genuen. *Karousel*-era joan ginen eta han, bere barneko umea aurkitzen zuela ikusi nuen: barre egiten zuen, nire gain uzkuertzean oihukatzen zuen, bagoneta amildu eta berriro igotzen zenean. Ez zuen hortik joan nahi. “Apur bat gehiago - esaten zidan –, beste behin”. Sanpana ahaztuta zeukala zirudien. Hori pentsatzen nuen nik.

- Nire nebatxoa nirekin ekarri izan banu... - esan zuen bat-batean

- Umetxoa?

- Bai. Orain nirekin egongo litzateke...

- Ez luke ezer ulertuko.

- Hala ere, egunen batean hona ekarriko dut. Goazen orain. Errota bat eraman nahi diot, airearekin bueltak ematen dituzten horietako bat. Nire diruarekin.

Momentu hartan bere eskuetan nengoen, bakarrik. Ahalegin handiak egin nituen negar ez egiteko. Lik babesten ninduen. Barreak entzun genituen. Oso zaratatsuak. Herri oso batek barre egingo balu bezala. Begirada jaso genuen eta masta luze batzuetatik zintzilik, barre egiten zuten paperezko txinatar maskarak ikusi genituen; begiek bueltak ematen zituzten eta ahoa zabalen zabal irekitzen zuten. Lik ere barre egin zuen. Buelta eman eta honakoa esan zidan:

- Zergatik ez duzu barre egiten? Ez zaitut inoiz barrezka ikusi.

- Barre egiten dut, noski, – erantzun nion – ez al duzu ikusten?

- Ozenki barrezka ikusi ditudan txinatar bakarrak, – esan zuen – hauek dira.

Faltsuak. Guk begiekin, ezpaineekin, belarriekin, egiten dugu barre. Hautzain txinatarra eduki al zenuen?

- Ez dut ezer gogoratzen. Ideiarik ere ez dut.

- Nik badakit. Gure esnea edoski duzu, horregatik ez duzu barrerik egiten.

Buruarekin baietsi nuen.

Itsas pasalekuko arkuen azpitik paseatu genuen, kairantz gindoazen bitartean. Itzulerako bidea. Montzoi garaia zen. Ibai luze batek Txina handia garbitzen zuen, eta zurrunbiloak sortuz, kontrabandistak, urdangak eta gizagalduak arrainak bailitzan eramaten zituen uhaldietan; bi haztegi handietan utzi arte, Hong Kong eta Macau izeneko bi zingira horietan. Amaierarik gabeko jaialdia. Egunak gauari lapurtzen zion eta gauak egunari. Shangaiko eta Pekingo urdanga garestienak, bere hirietan eguzki argia inoiz ikusten ez dutenak, Lotoren maitaleen oin hondatu eta ezinduekin (*foot-binding*)²⁴, orain, arropa garestiez inguratuta, balio handiko bitxiez ederturik eta *coolie* zikinen gidatutako *richshaw* deigarrietan igota, oinezkoei keinuak egiten dizkiete. Beste batzuk zutik gelditu ziren tabernetako ateen aurrean, geldirik, panpin baten antzera; eta traukilenak besotik heltzen zizuten emeki. Ez nuen inoiz jakin noiz hartzen zuten atsedean, noiz egiten zuten lo. Beharbada denboratik at dagoen beste momenturen batean. Saltzaile ibiltariak opioa eta kokaina saltzen zuten egun-argitan, txitxirio txigortuak salduko balituzte bezala. Opioaren usain miragarriak hodei batean bezala biltzen zintuen. Beste batzuek mutiltxoak eta neskatxak saltzen zituzten hongkongdar 100 dolarren truke. Ama askok azkenekoz agurtzen zituzten beraien seme-alabak, saldu berri baitzituzten. Sorgor, eskuek bakarrik egiten zuten negar soinekoa edo txirikorda txukuntzen zieten bitartean; beraien atzamarrek, ukitzen zuten moduagatik, atsekabea eta etsipena erakusten zuten. Orduan nabaritu nuen zerbait ez zebilela ondo; momentu batez txikitxoa galdu nuen eta gero zutabe baten atzean aurkitu nuen. Ikarak menderatzen zuen.

- Nire aurretik joango zara – esan nion – zure txirikorda ikusi nahi dut.

Duela urte asko, arratsalde batean, iluntzean, Beiruten galdu nuen Mitileneko neskaz oroitu nintzen; ezin izan nintzen lasaitu urte batzuren buruan berriz aurkitu nuenean ere; ezin izango dudala inoiz berriz lasai arnastu.

Txalupara igo ginen. Nire alboan eseri eta handik denbora gutxira lokartu egin zen. Itsasontzira iritsi ginen. Lehenengoz, ez zuen sanpanetara jaitsi nahi. Sofan burusi bat zabaldu zuen, erosi zituen gauzak hor utzi zituen, biluzi zedin trenkadarantz buelta emateko eskatu zidan. Oheratu zela esan zidanean, burua biratu nuen. Gauza berriak

²⁴ *Foot-binding-a* aintzinako Txinako ohitura bat da. Emakumeei benda estu bat jartzen zitzaien oinetan hauen tamaina txikitu eta forma alda zedin.

aulki batean ipini zituen arretaz. Ahoz gora zegoen eta ahurrak burupeko moduan jarri zituen. Zigarro bat erretzen ari nintzen.

- Ipuin bat kontatuko dizut – murmuratu zuen – Perla ibaia bezain luzea.

Has zedin itxaron nuen. Altxatu nintzen eta Li begiratu nuen. Lotan zegoen jada. Egunsentian kabinatik zebilela entzun nuen. Badirudi nire izara lurrera erori zela eta ni biluzik nengoen. Erdi lo nengoela, izara lurretik hartzen zuela ikusi nuen eta beharrezkoa zen tokietan, kontu handiz tapatzen ninduen; bere herrikideak ni estalgabe ikustea nahiago zuten tokietan. Berrito lokartu nintzen.

Eguerdian, agindua heldu zenean, - hurrengo egunean Triestinoko *Asia*-rekin itsasoratuko ginen –; esan nion. Ez zion kezkarik eragin. Elkarrekin prestatu genituen nire mailetak. Nire burusia, burupekoa, matalaza eta bi irlandar izara oparitu nizkion. Itsasmutil batek deitu ninduen eta kapitainaren kabinara jaitsi nintzen. Karalambos kapitaina serio zegoen. Bere eskua nire sorbaldan jarri zuen.

- Eramaitzazu soberan dauden arrautzak – esan zuen – eta dozena bat izokin kontserba-lata. Emaizkiozu zure alabaordeari, ez daitezela zaborrera bota. Goizero etorri da nire termoa urez betetzeko.

Liri esan nion.

- Orain aberatsa naiz – esan zuen –; sanpanetako neska batek ere ez dauzka nik dauzkadan ondasunak.

Bere burua makurtu zuen.

- Eskerrak ordain moduan ematea jarrera dotorea da. Bi pertsonak harreman hain estua dutenean ez dago ezer ordaintzeko beharrik.

- Itzuliko naiz – esan nion.

- Ez da inor itzultzen; Dragoi ona behin bakarrik jaisten da gure etxeetara. Pertsona asko ez dira aldi bakar batean ere berarekin topatu. Nik, berriz, ikusi egin dut.

- Orduan, zergatik ez duzu Manilako soka batekin lotzen alde egin ez dezan?

- Ukitzen dutenean txiki bihurtzen da; nire azazkala bezalako zizare bihurtu da. Esklabo bihurtuta ezin du onik egiten.

- Nolakoa da?

- Shantungo urrezko zeta hariz brodaturik dago.
- Eta nola laguntzen du jendea?
- Ez du laguntzarik ematen; garaiz heltzen da: norbait ibaian erortzen denean, senideek ez dute laguntzen. Ez da laguntzarik eman behar; garaiz iritsi behar da, erori baino lehen.

Ipotxa da – pentsatu nuen –; ez da normala era honetan pentsatzea.

- Benetan, esaidazu egia – esan nion –, zenbat urte dauzkazu?
- Aurreko egunean galdetu zenidanean bezainbeste. Hamar. Baina zergatik galdetzen didazu hau?

Gauerdian joan zen. Denbora luzez itxaron nuen agur esateko bueltatu zedin. Ez zen inoiz agertu.

Dodwell-eko txalupa handia *Protea*-ra alboratu zuen goizeko zortzietan. Eskaileratik jaitsi ginen. Ezezagunen esku uzten genuen itsasontzia ikusteko buelta eman zuten denek. Gutako bakoitzak bere bertuteak gogorarazi zituen gabeziak ahaztuz. Ez zegoen sanpanik gugandik gertu; ezta jungu bat ere.

Pireoko aduanan, nire bagajea miatzen zebilen kontrolatzaileak itsasontzia utzi genuen egunetik ireki ez zen poltsatxo bat aurkitu zuen maletaren hondoan, zatar-paperez bildutako paketea. Ireki egin zuen. Kontu handiz brodatuta zegoen bandera zahar bat ireki zuen: zabalean, urrezko hari zirpilduz dragoi bat zeukan marraturik.

Aduanazainari baliorik gabeko objektua zela iruditu zitzaion, eta berriro bere lekuan utzi zuen.

b) 2. Eranskina



Argazki honetan itsaslamiaren tatuajea ikus dezakegu idazlearen ezkerreko besoan.

c) 3. Eranskina



1995 *Between the Devil and the Deep Blue Sea* (Gasteleraz *Li. Entre dos mares* izenburua du)

Zuzendaria: Marion Hänsel; **Gidoia:** Marion Hänsel eta Louis GrosPierre (Nikos Kabadias-en lanaren arabera); **Fotografia:** Bernard Lutic; **Musika:** Wim Mertens; **Antzezleak:** Stephen Rea, Ling Chu, Adrian Brine, Maka Kotto, Mischa Aznavour, Lo Koon-Lan; **Koprodukzioa:** Belgika-Frantzia-Erresuma Batua; Man's Films / Tchín Tchín Productions / Flanders Film Fund / Loterie Nationale de Belgique / BRTN Fictie. Wanda Visión-ek Banatuta; **Herria:** Belgika; **Iraupena:** 92 min.